

A woman with a determined expression, wearing a floral dress and a headband, has her right fist raised in a gesture of solidarity. The background is a dark purple with a subtle pattern of overlapping circles.

urrats feminista

01. Feminismoa bizi ereduaren oinarri

urrats feminista

01.Feminismoa bizi erduen oinarri



ernaigazte.cc

2013ko udazkena

Haizea, Nahia, Juanjo,
Olaia eta Gaizka, mila esker



<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/2.5/deed.eu>

Independentzia, sozialismoa eta feminismoa helburu. Luzea da egiteko dugun bidea. Luzea eta gogorra. Baina bagoaz aurrera, urrats bat lehenengo, beste bat ondoren... bidea atzean utzi arte!

Urrats batzuk erraz ematen dira, beste batzuk nekezagoak dira. Batzuk azkar emango ditugu, konbentzimenduz, motelago beste asko, tentuz batzuk, ortozik baten bat, oinak blaituta piloa... baina urrats guztiak ezinbestekoak dira bidea egiteko. Dena dela, bidea egitea, itsuan, ezin dugu gure helburu bakar bihurtu, bidea egiteko moduari ere erreparatu behar diogu, urratsak emateko moduari. Zertarako balio digu norberak urratsak abiadura bizian emateak, gainerako kideak atzean uzten baditugu? Zertarako urratsak konfiantza osoz eman, horrek gure idealak alboratzea suposatzen badu? Zertarako bidezidorrak hartu, horrek bidearen osotasuna disfrutatzeko aukera kentzen badigu? Zergatik lur bigunak zapaldu, lur gogorragoek oinak indartzen badizkigute?

Helmuga ez da bidearen bukaeran dagoen zerbait, bidea ondo eginda lortzen dena baino. Ez da Euskal Estatu Sozialista eta Feministarik egongo, guk bidea horren arabera egiten ez badugu. Bidea ibiltzen eraikiko dugu eta, urratsez urrats. Horregatik, bidea balore sozialista eta feministetan oinarrituta egin behar dugu. Balore horiek, gure urrats bakoitzean presente egon behar dute, gure oin azpia izan behar dira.

Baina urrats horiek eman ahal izateko, badira lehenago eman beharrekoak ere. Urrats feminista eta sozialista horiek ematea ahalbidetuko digun aurrean beharra dugu. Azken batean, sistema kapitalista eta patriarkarrak gu ere alienatu egin gaitu, eta eraldaketa gugandik hasi behar dugu!

Ernairen prozesu eratzailean **independentzia, sozialismoa eta feminismoa zehaztu genituen helburu estrategikotzat**. Zalantza eta eztabaida ugari eragin dituen erabakia izan da. Sozialismoak ez du feminismoa barnebiltzen? Estatu bat feminista ala parekidea da? Teorian zein praktikan feminista garela esan dezakegu, edo antolakundeari jarri diogun abizen bat da?

Argi dugu pertsona askez osaturiko estatu sozialista bat nahi dugula. Sistema sozialista, ordea, antolaketa ekonomiko hutsetik harago doan filosofia den heinean, berau bideragarri eta logiko egingo duten balore batzuetan oinarritua egon behar da. Balore feministetan, hain zuzen ere. Horregatik, gure ustez, **feminismoa ez da sozialismoaren ezaugarri bat gehiago, sozialismoaren oinarria bera baino**. Ez da posible benetako sozialismoa garatzea, jendarte aske bat lortzea, teoria zein praktika feministarik gabe. Sistema ekonomikoa alda genezake, agian nolabait jendarte egitura ere bai, baina sexu eta generoak irauli gabe, genero-rolak eta horien araberako harreman ereduak suntsitu arte, patriarkatuak hor iraungo du. Eta patriarkatua indarrean dagoen artean, ez dago jendarte askerik. Patriarkatuak zapalkuntza baitakar.

Beraz, kapitalismoaren suntsiketak ez dakar bere horretan patriarkatuaren agorpena. Indarrean egon diren eta dauden sistema sozialistek argi adierazten

digute hori. **Kapitalismoak patriarkatua baliatzen du bizirauteko:** gastuak murrizteko, biztanleriaren erdiak familiaren izenean ezkutuko zaintza lanak dohainik edo esplotatuta burutu ditzan behar du; lan merkatuan gutxietsia izatearen ondorioz, soldata baxuagoak izango dituen sektoreak behar ditu, gastuak murrizteko zein gainerako soldatekin lehiatzeko; kapitalen metaketa eta iraupena bermatzeko, familia eta haren baitako ugalketa behar ditu; ugalketa hori familia-eredu nuklearraren baitakoa izateko maitasun-eredu monogamo eta zehatz bat behar ditu; ekoizpena ez pilatzeko, rolak eta horiek ezartzeko behar faltsuek (moda, edertasun estereotipoak, elikadura ereduak, aisialdi eredu zehatz bat...) eragindako eskaria behar ditu... Zerrenda amaigabea osa genezake, baina ondorioa argia da: patriarkatuak kapitalismorik basatiena ahalbidetzen du.

Patriarkatuak, ordea, ez du kapitalismoa behar. Beste sistema batzuetara moldatzeko gaitasuna du, eta hala frogatu du historikoki. Sobietar Batasunean, Txinan, Cuban, Venezuelan martxan dabilen prozesuan...

Gaur egungo bizimoduaren zirrikiturik txikienean sartzen da patriarkatua. Hain dugu barneratua, ohartzea ere zaila egiten zaigula. Gure baloreak, eguneroko portaerak, keinuak, hizkera, harreman-ereduak... ezartzen ditu. Emakumearen zapalkuntza hainbat eremutan oso nabaria den arren, beste batzuetan, berriz, sotila, ia ikusezina da. Gainera, askotan ez dira pertsona batek besteengan eragindako erasoak, guk geuk egunero erreproduzitzen ditugun itxuraz txikiak diren jarrerak baizik. Horrela, gure estaturako bidean ematen ditugun urratsetan ere, patriarkatuak esku sartu nahi du, bilatzen dugun eredutik desbideratzen gaitu, eta bere sotiltasunak zaila egiten digu ohartzea, eta ondorioz, borrokatzea.

Beraz, jendarte sozialista bat eraikitzeke, patriarkatua suntsitu behar dugu lehenik. **Mugimendu iraultzaile askoren akatsa izan da feminismoa iraultzaren osterako etxerako lantzat uztea, eta horren ondorio izan da benetako jendarte askeak lortu ez izana.** Ezkerreko mugimenduek aspalditik izan dute euren burua feministatzat, baina bigarren maila batean geratu den borroka bat izan da. Ezker Abertzalean ere antzera gertatu zaigu: feminismoaren garrantziaz aspaldi ohartu gara, baina ez diogu duen balio estrategikoa eman, eta ez ditugu gure arteko harremanak eta barne funtzionamendua balore feministen arabera eraldatu. Horregatik da izugarrizko apustua feminismoa Ernairen helburu estrategikoetako bat izatea. Kapitalismoa suntsitu artean, bizi eredu berrien bidez ari gara sozialismoa eraikitzen eta horren oinarria feminista izateko, gaurdanik ekin behar diogu balio eta praktika feminista garatzeari. Patriarkatua kapitalista bada, gure sozialismoa feminista izan behar da. Azken batean, feminismoa ez da teoria multzo huts bat, bizitzako eremu guztietan itzulpena izan behar duen bizi filosofia baino.

Iraultza feminista eta sozialista esku beretik joan behar dira, iraultza bera dira. Ez da jendarte parekiderik egongo jendarte aske batean ez bada eta era berean, ez da jendarte askerik izango egiturazko zapalkuntzak dirauen artean. Beraz, gaurdanik ekin beharreko ezinbesteko erronka da.

Hala ere, ez da nahikoa "independentzia, sozialismoa eta feminismoa" abizena jartzea gu geu feministak izan gaitzen. **Teoriatik harago, arlo guztietan praktikan jarri behar dugu feminismoa**, bai norbanako gisa, bai antolakunde gisa.

Erdietsi nahi dugun jendartearen isla izan behar dugu guk, gaurdanik hasi behar dugu bizi-eredu sozialista eta feminista hori eraikitzen, praktikan jartzen, bizitzen. Baina, argi dago lan handia dugula egiteko. Azken batean, ez gara isolaturik bizi, jendarte kapitalista batean bizi gara, eta gu ere balore patriarkalen arabera hezi gaituzte. Zaila da betaurreko moreak jartzea, eta oso nekagarria behin jarrita, ikusten ditugun zapalkuntza guztien aurrean borrokatzea. Patriarkatua gure bizitzako zirrikiturik txikienean ere sartu zaigu: telebistan, arropan, lagunekin ditugun elkarriketetan, Jai Batzordean hartzen ditugun arduetan, gaztetxean betetzen dugun paperean, gure harreman afektiboetan erreproduzitzen ditugun roletan, aukeratzen ditugun ikasketetan, gure familiarekin dugun harremana... Atsedetik gabeko borroka bat da, eta askotan, oso eremu pertsonalean ematen dena. Baina pertsonala politikoa da, eta eraldaketa gugandik hasten da!

Horri erantzun nahi dio Ernairen 4 urteko urrats feminista honek: iraultza sozialista feminista egingo duten subjektu iraultzaile feministak sortzeari. Gu geu gara iraultzarako tresna. Gure baitan dugun etsai inkontziente patriarkal hori kontzienteki suntsitu behar dugu, gero sistemari ekiteko.

Urratsa da, egin beharreko bidean ezinbesteko pausu bat delako. Ez da urrats bakarra izango, ordea, eman behar ditugun beste urrats askoren artean bat gehiago izango da. Baina urrats hau lehendabizi emanda, hemendik aurrera emango ditugun urratsak sendoagoak izango dira, bidea indartsuagoa egingo dute.

Azken batean iraultzaileak, erradikalak izan behar gara, eta erradikala arazoaren muinera doana da: eta egungo bizi ereduaren muina, erroa, kapitalismoa eta patriarkatua dira.

Baina urrats erraldoi hori emateko ezinbestekoa da kontzientzia hartzea, ahalduntzea, antolatzea. Sozialismoa eta feminismoa elkarrekin eraikiko ditugu, bata bestean oinarriturik, sistema kapitalista eta patriarkala errotik suntsitzeko.

Beraz, goazen elkarrekin urrats more hau ematera!

1. kaiera:

Feminismoa bizi ereduaren oinarri!

Urrats feminista deituriko bide honen hastapena da lehenengo kaiera hau. Urratsak emango ditugun bidearen **hasiera**. Gure buruei begiratu, ezagutu, sistema oso baten aurreko jarrera eraiki nahi dugu feminismoa tresna hartuta, eta **tresna** hori lantzerantz goaz.

Bide hori **nola** egingo dugun da garrantzitsua. Lehenik eta behin, argi izan behar dugu kaiera helburu bat lortzeko tresna dela, ez helburua bera. Hausnartzeko, eztabaidak ematen laguntzeko, kontu desberdinak azalertzeko... bitarteko bat. Kaieran oinarrituko gara bideari ekiteko. Ikasturte osoan landuko dugun edukia biltzen du kaierak eta gure lan tresna izateaz gain, guk geuk gure helburu eta errealitaterako baliatu, eraldatu eta egokitu beharreko tresna da.

Irakurgaiak eta oinarri teorikoa biltzen dituen materiala lagungarria eta osagarria izan arren, taldean landuko ditugun dinamika ezberdinak izango dira prozesuaren ardatza. Horrela, prozesuan zehar jarraituko dugun ordena honakoa izango da: lehenik eta behin talde dinamikak burutuko ditugu, elkarrekin hausnartu eta elkar-elikatzeko; ondoren, kaierako eduki teorikoa landuko dugu, hasitako hausnarketetan sakontzeko; eta azkenik, barneratutako eduki guzti hori gure egunerokotasunean eta antolakundearen funtzionamenduan praktikan jarriko dugu. Prozesuak guran ezinegon batzuk sortu eta sakontzea du helburu, horrek gure bizitzan itzulpen praktikoa izan dezan.

Lau urteko prozesu feminista honetan, "Feminismoa bizi ereduaren oinarri!" gisa landuko dugu. Kurtso honi dagokionez, hiru helburu ditugu:

1. Antolakundearen kontzientzia feminista sortu edo sakontzea.
2. Kontzientzia horren ondorioz, gure arteko harremanetan isla izan eta hauek eraldatzen hastea.
3. Antolakundearen funtzionamendua eta parte hartzea balore feministetan oinarritzea.

Lehenengo kaiera honen edukia, hiru ataletan banatzen da:

Sexu-genero sistema Oinarritik hasiko gara sistema hau aztertzen.

Patriarkatua eta kapitalismoa Eskutik heldutako aliantza.

Alternatiba praktika feminista.

Nahiz eta kaiera hiru ataletan banatu dugun, atal guztiak elkarri oso estuki loturik daude, eta atal bakoitzean, beste biei erreferentzia egiten zaie.

Atalka landuko dugun arren, kaieraren lanketa bera malgua izango da, herri eta

auzo bakoitzak gure gaitasunen arabera saioak moldatu ahal izateko. Horregatik, kaieraren atal bakoitzaren hasieran, atal horri dagokion metodologia daukagu. Metodologia horren denboralizazioa kontuan izanda, bakoitzak gure egutegia antolatuko dugu, buruan izanik otsailean lehenengo bi blokeei dagokien balorazio fitxa bete beharko dugula, eta ekainean hirugarren blokeari dagokiona.

Horrez gain, saioak dinamizatuko dituztenei laguntzeko, “Dinamizatzailearentzako Gida” izango dugu, dinamika bakoitzari dagozkion eztabaidetan sakontzeko gako eta bestelako euskarriekin. Kontuan eduki behar dugu, nahiz eta dinamikak taldekide batzuek dinamizatuko dituzten, prozesua aurrera eramatea taldekide guztion ardura dela, eta taldean bertan adostuko dugu lana nola banatu.

Ahalduntze kolektiborako zein pertsonalerako bitartekoa izan behar du prozesu honek, eta horregatik, talde dinamikez gain, bakoitzak koadernotxo bat izango dugu, dinamika desberdinetan emandako norberaren hausnarketak, balorazioak, zalantzak, etab. jaso ahal izateko. Horrela, prozesuak aurrera egin ahala, gure garapen pertsonala ikusi ahal izango dugu koadernoan islatuta, eta kurtso bukaeran, balorazio orokor oso bat egin.

Beraz, gure kaiera, koadernotxoa eta taldea prest ditugula, ekin diezaiogun urratsa emateari!

Beraz, gure kaiera, koadernotxoa eta taldea prest ditugula, ekin diezaiogun urratsa emateari!

o. Lurreratzea Ordu 1

Non gaude?

Gure bizitzetan, feminismoa bakoitzak modu ezberdinean ulertu eta bizi arren, urrats honen bidez, elkarren arteko zubiak eraikitzen goaz. Bizi eredu berri baterantz, urratsak batera emateko, patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurrean aliantza sendo bat eraikitzeko. Hasi gaitezen elkartruke eta ikasketarako aukera honetan, teoria eta praktika uztartuz urratsak ematen. Gu geu gara gure urratsen gidariak.

Feminismoaren lur zabalean urratsa emateko, garrantzitsua izango da gu geu non gauden jakitea. Gure iritzia aberastuz, konpartituz, taldeko abiapuntua orekatzea da asmoa, denok batera urratsak ematen hasteko, bakoitza bere abiapuntutik.

Hauk dira proposatzen diren ariketen **helburuak**:

Abiapuntua ezagutzea: Feminismoaren inguruan, gure buruaren eta taldearen ikuspegia ezagutu eta joera ezberdinei arreta jartzea. (hitzartzeak, formak, lotsak...).

Taldea indartzea: partehartzea eta dinamikotasuna bermatzea taldekide guztien motibazioa pizteko eta denok gustora sentitzean arreta jartzeko.

Gai nagusiak mahaigaineratu: guztion ekarpenak jasoz, kaieraren edukiaren hainbat gako nagusi azalaratzea.

Ariketak:

1. Beroketarako ariketa fisiko aktiboa. (5 min) + pilota 1

Gelan bueltaka, oinez, arin joango gara alderik alde. Erdian baloia gora botako du batek: feminismoaren inguruko hitz bat eta taldekide baten izena esanez. Taldekide horrek baloia hartu eta aurreko hitzarekin lotura duen beste hitz bat eta izen 1 botako du.

Hitzak bota ahala, ulertzen ez dugun hitzen bat entzunez gero, arbelean idatziko dugu, eta dinamika bukatzerakoan denon artean euren esanahia landuko dugu.

2. Gure buruen aurkezpena. (10 min) + paperak + boliak

Paper batean, ezezagun bati NOR zaren azalduko diozu. Denok idatzitakoa irakurritz bira bat egin.

Amaitzeko galdera 1 airera bota: *Gure identitatea nola eraikitzen dugu? Zerikusirik dauka gure sexuarekin? Zenbatek aipatu dugu sexua edo generoa?*

3. Esaldiak (5 min) papera+boliak

Gure inguruan entzundako genero zapalkuntza islatzen duten pare bat esaldi pare bat idatzi eta mahaiaren edo borobilaren erdira bota (zapaltzaileak, iragarkietakoak, kantetakoak, eztabaida batekoak...).

Denen artean irakurri eta komentatu.

4. Termometroa (30 min) pilota+baieztapenak

Denok lerro batean kokatuko gara, ezker-eskuin gelako bi alde aukeratu eta horrela izendatuko ditugu: ADOS alde batera, EZ ADOS bestera.

Dinamizatzailak baieztapenak ozenki irakurri eta denok gure adostasunaren arabera ezker-eskuin mugituko gara. Baieztapen bakoitzaren amaieran, elkarrizketa pilotatuz, txanda hartuko dugu gure kokapena argudiatzeko. Eztabaida sakonegia sortu gabe, hurrengo baieztapenera salto egiteko.

Eztabaida aberatsa sortzen bada bikain, bestela ez dezagun ahaztu ariketa hau ez dela arrazoia nork duen bilatzeko, esaldi hauetako bakoitzak atzean duen mamia azalertzeko baizik.

> Baieztapenak:

- Emakume eta gizonen aukera eta eskubide berak ditugu gaur egun.
- Mutilek neskek baino inimizatiba eta autonomia handiagoa dute orohar.
- Emakumeak bakarrik elkartzeko eta antolatzea gizonen diskriminatzea da.
- Feminismoa emakumeen eskubideen aldeko mugimendu bat da soilik.
- Emakumeek eta gizonen ardura berdina dugu gaur honetako.
- Denok pertsonak gara, denetarik dago.
Ezin da sexuaren arabera orokortu.
- Feminismoa lantzea, borrokatzea, lehentasuneko da.
- Kapitalismoa suntsitu ezker, patriarkatuaren ere desagertuko da.

5. Ondorioak (5 min.)

Norberak idatzi: Kaiera lantzeko bakoitzak koaderno txiki bat izango du. Ohar, ariketetako ondorioak edota apunteak hartzeko. Hasiera emateko bertan idatziko ditugu honako bi galderon erantzunak:

Lehenengo ariketa hauetan zer gustatu zait gehien?
Nola sentitu naiz? Nola sentitu ditut besteak?

1. Oinarritik aztertzen 2 ordu, 20 min

Sexu-genero sistema

Feminismoa, patriarkatuaren aurreko gure jarrera da eta pentsamendu eta praktika ugari garatzen baditu ere, guk, gure errealitatea eraldatuko duen feminismoa eraiki beharko dugu. Horretarako zapaltzen dugun oinarria ongi ezagutu eta muinera jotzeko hemendik hasiko gara: sexu-genero sistema.

Patriarkatuaren oinarrian, elkarri lotuak dauden bi hitz ditugu sexua eta generoa. Honen inguruan eraikitzen dena eremu guztietan dago. Ezin ditugu elkar-eraginik gabeko bi hitz gisa ulertu, bi kontzeptu hauek elkar batuta, etengabe zapaltzen gaituen sistema oso bat eraikitzen baitute. Gaur egungo sistemak ere, bien arteko lotura zehatza eraiki du, baina nola ulertzen dugu lotura hori guk? Eraiki dezagun gure ikuspegia.

Jaio baino lehen ezartzen zaigu sexu arra edo emea eta horri lotua genero maskulino eta femeninoaren eraikuntza soziala. Honek guztiak pentsamendu dominatzaile eta ideologia zapaltzaile baten oinarriari erantzuten dio. Aztertu dezagun nola eragiten digun gure bizitzan sistema honek. Hauek dira ariketa hauen **helburuak**:

- Sexua eta generoaz dugun ideia aberastu, kolokan jarri, eztabaidatu eta kontzeptuak argitzea.
- Sexu-genero sistema, sistema oso bat dela ondorioztatzea.
- Sexua ere eraikia den eztabaidatu, ikuspegi biologizista apurtzea.
- Binomioetan eraikitzen den sistemaren oinarria dela ikustea.
- Honek eragiten duen zapalkuntzan sakonduz ikuspegia eraikitzea.
- Banaketa hau kapitalaren mesedetara bideratua dagoela ondorioztatzea.

Ariketak:

6. Definizioak. (5 min)

Bakoitzak gure hitzekin paper batean bi hitz hauek definituko ditugu: Sexua / generoa. Ondoren paretan itsatsiko ditugu, blokea amaitzean berrikusteko.

7. Ideia hodeiak. (40 min) 4 paper handi+arbela.

4 taldetan banatuko gara. Talde bakoitza paper handi baten inguruan bilduko da eta talde bakoitzak kontzeptu bat izanen du paper handiaren erdian.

SEXUA/GENEROA/MASKULINOA/FEMENINOA.

Talde bakoitzak, erdian dagoen kontzeptuaren inguruan hitz solteak idatziko ditu. Ordenarik gabe, burura datozkigun hitzez beteko dugu paper handia, taldekide guztiok aldi berean. 2 minutuko tartea utzita, talde bakoitzak bere paper handia pasako diogu gure ondoko taldeari, hitz gehiagorekin betetzeko eta horrela 4 kontzeptuetatik pasaz, berriz hasierako kontzeptua hasierako taldeari heldu arte.

Berriz hasierako kontzeptuaren papera dugula, oraingoan inguruan hitz pila bat dituela, hitzen arteko loturak egingo ditugu. Marra batez lotuko ditugu harremana duten hitzak eta taldean adostuko ditugu lotura horiek.

Denon artean, talde bakoitzeko paperean idatzitako hitzak eta loturak komentatuko ditugu. Zalantzak argitu eta galderak botako ditugu, eztabaida emateko.

Eztabaida ematen goazela, dinamizatzailleak arbelean idatziko ditu ondorio nagusiak

8. Binomioak. (30 min) paper tirak + zeloa.

Bi hitz izango ditugu oraingoan. Gelan, aurrez aurre dauden paretan banatan itsatsita: GIZONA/EMAKUMEA. Dinamizatzailleak kontrajarriak diren bi hitzez osatutako binomioa agertzen den paper tirak banatuko dizkio taldekide bakoitzari. Eta banan bana tirak eskuekin erditik moztu eta binomioa osatzen duen hitz bakoitza paretan batean eta bestean kokatu beharko ditu. Paretan kokatzeko unean, eztabaida eta galderak sustatuko ditugu eta adibideak jartzen saiatu.

- aberats/pobre
- kultura/natura
- arrazoia/emozioa
- efektiboa/afektiboa
- zuria/beltza
- produkzio/erreproduzio
- zapaldua/zapaltzailea
- pribilegiaduna/pribilegiogabea
- objektiboa/subjektiboa
- protagonista/ikuslea
- aktibo/pasibo
- pribatu/publiko
- indibiduala/kolektiboa
- autonomia/menpekoea
- ...

9. Bideoa ikusiko dugu. (30 min) proiektorea+ordenagailua

Bideoan, sexu-genero sistemaren eraikuntza gure egunerokotasunetik aztertuko dugu, horrela sistema osoa zelan eraikitzen den lantzeko.

Bideoa ikusi eta ondoren gure artean komentatuko dugu.

10. Sexu-genero eraikuntza. (15 min.)

Hasieran paperean idatzitako definizioak berrikusiko ditugu, eta nahi izanez gero aldaketak egin. Zer aldatuko genuke gure definizioan?

Ondoren, guztiok elkarrekin konpartituko dugu aldaketarik egin dugun, eta zergatik.

11. Etxerako lanak. (10 min.)

Elkarrekin eztabaidatu eta ikasitakoa gure egunerokotasunean aztertzeko etxerako lana proposatzen dugu. Ikuspegi feminista lantzeko betaurreko moreak jantzi eta hurrengo eremu hauek arretaz aztertuko ditugu:

Kalea (publiko/pribatua): kaleko komentarioak, umeen zein nagusien zaintza lanetan nor ibiltzen den, denda desberdinetan nor dabilen lanean, erakusleihen antolaketa...

Etxea (familia/bikotea): etxeko lanen banaketa, bakoitzaren rolak, noren argazki gehiago dauden, etxean bakoitzaren espazioen banaketa, dekorazioa...

Bilerak (lan banaketa/parte hartzea): rolak, arduren banaketa, lana, parte hartzea, barne funtzionamendua, eztabaidak zelan burutzen diren, planteatzen diren ekimenak...

Sexu-genero sistema eremu hauetan nola islatzen den aztertzeko, espazio bakoitzaren ezaugarriak identifikatzen eta gure koadernoan idazten joan gara. Hurrengoan denen artean konpartitzeko.

Bakoitzari eremu bat tokatuko zaio, horretarako hiru eremu hauek papertxo banatan idatzi (errepikatuak) eta bakoitzak zer hautatzen duen ikusi gabe bat hartuko du, besteei zer tokatu zaion esan gabe.

12. ondorioak. (10 min)

Atal honen balorazioa egingo dugu banaka eta taldean.

Banaka: norbere koadernoan galdera hauei erantzungo diegu: zein izan da nire jarrera beste kideekiko? Zerk sortu dizkit kontraesanak? Zer ikasi dut?

Taldean: Denon jarrera eta elkarlanetik ahaldunduko garenez, horren inguruko gure sentipena igorriko diogu taldeari. Ronda bat eginez, bakoitzak, taldean egindako saio honetaz ezaugarri positibo¹ eta negatibo¹ aipatuko du.

Balorazio honek hurrengo saioa hobeto egiteko laguntzeaz gain, aldatu beharreko joerak identifikatu eta egiten ari garen lanketa konzienteago egingo du.

1.

GINARRITIK AZTERTZEN:

SEXU GENERO SISTEMA

Sexu-genero sistema errealtatea ulertzeko eta gizartea antolatzeko sistema bat da. Sistema honek hierarkia baten bitartez funtzionatzen du, zeinetan pertsona eta ezaugarri konkretu batzuk beste batzuen gainetik kokatzen diren. Saillkapen hierarkiko hau binomiotan egituratuta dago, hau da, bi ezaugarri edo kategorია kontrajarriren arabera.

Nondik dator sistema honen logika?

Mendebaldean mundua dikotomien arabera ulertzen ikasi dugu. Ikuspegi binomikoak **errealtatea kontrajarriak diren bi talde edo kategoriatan (eguna/gaua, gizona/emakumea, gorputza/arima, etab.) banatzen du**, modu sinple eta murriztaile batean. Pentsamolde honek kontrol funtzio bat betetzen du: bi kontzeptu edo talde horien arteko hierarkia harreman bat sortzen du, bata menperatzailea eta bestea menpekoa delarik. Binomioen arteko zatiketa hori sexu/genero banaketarekin lotzen da, gizona eta maskulinitatea marraren alde batean kokatuz eta emakumea eta feminitatea beste aldean. Horrela, jendartea osatzen duten norbanakoak bi kategoría horien arabera sailkatu eta euren arteko antolaketa hierarkiko bat ezartzen da: gizonari esleitutakoa baloratu eta gorai patuz eta emakumeari esleitutakoa, berriz gutxietsiz (*esaterako, egunerokotasunean gure amek sukaldatzen dutenean ez dute inolako aitortzarik jasotzen, aldiz, gizonak sukaldatzen dutenean "txef" izaera eta aitortza soziala izango dute*).

Berez helburu bati erantzuten dioten eraikuntza kulturalak diren arren, naturaren berezko ezaugarriak bailitza ikasi eta barneratzen ditugu, zalantza jarri gabe, eta jendartea zein gure harremanak ikur horien arabera eraikitzen ditugu. Bai ideologia patriarkalak, bai kapitalistak, euren egiturazko zapalkuntzak mantentzeko, berauek legitimatu edo "natural" egiten dituzten harreman eredu binarioak sortu dituzte, bata bestea elkarren kontrako bezala agertzen zaizkigun eta elkarren menpekoak diren taldeak: arra/emea, emakumea/gizona, heterosexuala/homosexuala, langileria/burgesia, zuria/beltza... Eta bikote-banaketa horiek indartzeko, talde bakoitzari beste ezaugarri kontrajarri batzuk atxikitzen zaizkio, horrela lehenengo banaketa indartuz: arrazoa/natura, publikoa/pribatua, indartsua/ahula, produktiboa/erreproduktiboa, indibidualista/kolektiboa, ausarta/beldurtia, harroa/xumea... Bestela esanda, aurrez ezarritako botere harreman horiek indartzeko elementuak lotzen zaizkio kategoría bakoitzari.

Eta sistema honek nola funtzionatzen du?

Mundua ulertzeko modu hori ideologiaz kargatua dago. Alde batetik, **gauza eta gertaera oro identifikatua eta sailkatua egotea eskatzen du**. Gainera, klasifikazio hori tresna desberdinen bitartez "naturalizatzen" da, gauzen saillkapen hori normala eta saihestezina dela uler dezagun. Ondorioz, bi aukera horien artean egon daitekeen "sailkatu gabeko" beste edozein aukera, ez da normala edo normala izango. Ikuspuntu dualista hau hegemonikoa da mendebaldeko jendartean, hau da, errealtatea edo mundua ulertzeko nagusitzen den joera da.

Errealitate bat eta bakarra dagoela saltzen zaigu, zeina dikotomietan sailkatua dagoen. Errealitate hori inposatzen zaigu, eta hori ikasten dugu txikitatik. Baina horrek ez du esan nahi beste errealitate batzuk existitzen ez direnik. Saikopen horri erantzuten ez dioten errealitatea ulertzeko gainerako moduak zapaldu eta estali egiten dira, sistemak antolaketa hori behar baitu bizirauteko. Horren adibide da bisexualitatea jendartean mesfidantzaz begiratzea, eta hautu sexual bat gehiago bezala ulertu beharrean “bizioa” dela esatea. Aurrez ezarritako bi kategorien (homosexualitatea eta heterosexualitatea; bata hegemonikoa, bestea bazterrekoa) ezinbestekotasuna zalantzan jartzen du, baita bi aukera sexual bakarrik egon daitezkeenaren ideia ere. Ezarritako antolaketa apurtu du, eta jendarteak mesfidantzaz erantzuten du, baztertu eta ukatu egiten du. Bestetik, ideologia horren arabera, **dikotomia horien baitan zapaltzaile eta zapaldu bat egon behar da beti**, eta hori da bai sistema kapitalistak bai patriarkalak erabiltzen dutena errealitate desberdinak edo euren kategoriei erantzuten ez dien edozer zapaltzeko.

Pentsaera hori da genero bat zapaltzeko erabiltzen dena, baina baita arraza, etnia eta herriak zapaltzeko erabili izan dena ere. Pentsaera menperatzaile horrek oinarritu ditu kolonialismoa eta inperialismoa, pentsamolde dualistak sinestarazi baitie potentzia batzuei, beste batzuk menperatu eta euren lurra ustiatzeko zilegitasuna dutela. **Indarkeri** guzti horren atzean ideologia patriarkala dago, kolonialismoa “gizontasunaren” ikur ere badelako. Herri batzuk besteen gainetik daudela adierazteko balio du, “boteretsuagoa”, edo azken finean, “gizonagoa” zein den ezartzen du. Horrela, herri kolonizatueta, “botere” eta “gizontasun” hori argi uzteko emakumeen bortxaketak erabili izan ohi dira. Euskal Herrian, tortura sexista dugu horren adibide argia. Era berean, pentsaera horrek sinestarazi dio klase zapaltzaileari ekoizpen bideen jabe izateagatik edo beste baldintza batzuk izateagatik, langile klase batzuk esplota ditzaketela. Are gehiago, klase baten baitako kideei ulertarazten die klase bereko beste kide batzuen gainetik egon daitezkeela, adibidez, genero batekoak (emakumeak) izateagatik. Pentsamolde dualista mundua ulertzeko era bat da, baina baita kontrol sozialerako mekanismo bat ere. Zapaldu eta zapaltzaile izaera horren arabera, pentsamendu hegemoniko horrek kategoria bakoitzari funtzio sozial bat esleitzen dio jendartean, eta horretarako heziketa jasotzen du. Errealitatea antolaketa horren arabera jasotzen dugu, eta gu moldatu behar gara errealitate horren beharretara, ez hura gureetara.

Errealitatea sailkatzeko sistema hori nola erlazionatzen da generoarekin?

Antolaketa dikotomiko horietan oinarritzkoenatarikoa da generoarena.

Txikitatik “ongi” eta “gaizki” dagoena irakasten diguten bezala (banaketa simple hori ere dikotomia interesatu bat da), familia eta beste instituzio batzuen bitartez normala zer den eta zer ez ikasten dugu, baita ere neska edo mutila garen. Naturaltasunaren diskurtso horrek izugarritzko botere sinbolikoa du. Izan ere, generoekin hausteak ez dakar berez zigor fisiko edo juridiko bat, baina jendartean izugarritzko **mehatxu sinbolikoa** da: “normala” ez izateagatik baztertua izatea, iraindua, jazartua, bakarrik geratzea, lanetik kaleratua izatea, patologia

edo buruko gaixotasun gisa hartzea... Indarkeri sinboliko horren helburua, ordena sozial inposatua mantentzea eta erreproduzitzea da eta indarkeri fisikoa baino eraginkorragoa da gaur egun. Gainera, sotilagoa den heinean, identifikatzeko eta gaidintzeko zailagoa da: inon ez da jasotzen mutil bat eskolara soinekoa jantzita joan ezin denik, baina jakin badakigu eginez gero, gainerako haurren iseken objektu izango dela. Ondorioz, hein handi batean indarkeri sinboliko honen eraginkortasuna bere **naturalizazio bikoitzean** oinarritzen da: alde batetik, norbanakoengan eragiten den indarkeria da, eta bestetik, norbanako horien ezjakintasun eta kooperazioari esker eragiten da. Presioa izatetik edo indarkeri sinboliko izatetik, indarkeri fisiko izatera pasatzen da muturreko hainbat kasutan, matxismoak, homofobiak, transfobiak... erailak direnen kasuetan.

Genero sistemak zertan du isla?

Botere sinboliko horrek mantentzen duen errealitateak ez du zertan zentzurik izan. Izan ere, objektu eta gorputzei esanahi sozial bat ematen diegu garai ezberdinetan, baldintza geografiko desberdinetan, genero eta klasearen arabera, adinaren arabera... Jendarte batek partekatzen duen iruditegi edo imajinario kolektiboaren arabera aldatzen da gauzen zentzua, eta askotan ez dute oinarri arrazional bat. **Edertasuna** adibidez, jendartearen arabera aldatzen da. Garai eta toki desberdinetan, genero bakoitzari edertasun kanon desberdinak ezarri zaizkio. Aro Modernoan, emakume aristokratek hauts zuriak botatzen zituzten azalean itxura zurbilagoa izateko, eta emakume nekazariak mespretxatuak ziren eguzkipean lan egitearen ondorioz azal beltzarana izateagatik. Gerri estu-estua izateko, ia arnas egiten uzten ez zieten korse-ak jantzen zituzten emakume aristokratek, eta gizonetzkoen artean, berriz, loditasuna aberastasunaren eta boterearen seinale zen. Gaur egun, ordea, imajinario horrek beltzarana izateko obligazioa ezartzen dio emakumeari, eta behar faltsu horren kontura, solarium-ek izugarritzko dirutza irabazten dute; argaltasunak, ordea, edertasun estereotipatuaren ezinbesteko elementu izaten jarraitzen du. Beraz, edertasunak esanahi soziala du, klase eta generoari guztiz lotuta dago. Hori bai, modu batera edo bestera, klase sozialak eta generoa, kultura eta garai guztietan ematen diren errealitateak dira, eta logika ematen diete gainerako banaketei.

Gauzen esanahi sozialaren zentzugabekeriaren adibide oso argi bat dira ume txikiek mundua ulertu asmoz nagusiagoei egiten dizkieten galderak. Askotan ordena soziala guztiz apurtzen duten galderak egiten dituzte, oraindik ez dutelako ideologia patriarkal hegemonikoa barneratu, eta ez dakigu zer erantzun, edo "horrela delako" erantzun behar izaten dugu; bat eta bakartzat jotzen dugun errealitatea sistema mantentzeko jendarteak egindako eraikuntza kultural artifizialen multzo bat besterik ez delako. Kultura binario eta hierarkiko honen ondorio da mendebaldeko gizon zuri, heterosexual eta osasuntsuaren gailentasun ekonomiko zein soziala, bai ezaugarri berberak dituzten edo ez dituzten emakumeekiko, baita baldintza desberdinak dituzten gizonekiko ere. Era berean, klase zapaltzaile bateko emakumeak klase menperatu bateko beste emakume baten aurrean gailentasuna izan eta esplotatu ahalko du.



Genero sistemak ideologia bati erantzuten dio?

Hala ere, **generoaren eraikuntza horiek aldatu egiten dira kultura bakoitzaren arabera**. Hau da, jendarte egiturak, ideologia hegemonikoak, ekonomiak eta tradizio kulturalak baldintzatu egiten dute genero bakoitzari dagozkion ezaugarriak. Dena dela, ukazina da, kultura gehienetan, baldintza desberdinak gora behera, emakumeak politikoki, sozialki, sinbolikoki zein ekonomikoki, gizonezkoak baino maila apalagoan daudela baloratuak. Horren ondorio zein oinarri da emakumea gizona ez den "bestea" gisa eraiki izana: gizona ez dena da emakumea. Generoa berezkoa dugun ezaugarri natural bat izan beharrenean, eraikuntza soziala zela defendatu zuten lehenengo feministek ere azpimarratu zuten emakumearen "alter" izaera hori. Simone de Beauvoir-ek berak horregatik izendatu zuen "Bigarren Sexua" feminismoaren klasiko bihurtuko zen liburua: gizona lehen mailakoa da, eta jendartea eta emakumea bere neurrira eraikita daude. Jendarte androzentrista batean bizi gara, beraz.

Jendarteek, oro har, joera izan dute giza jendartea eta natura bereizteko. Izan ere, gizakia beti saiatu izan da natura mende hartzen eta bere helburuetarako erabiltzen. Horregatik, **ideologia patriarkalak gizona naturaren gainetik irudikatu izan du**. Gizonezkoak kulturaren eta arrazoiaren ikurrarekin identifikatu diren artean, emakumezkoak natura eta lurrarekin lotuak izan dira. Lotura sinboliko hori emakumearen funtzio erreproduktiboaren ondorioz egin izan da: emakumea biologiarra lotu izan da, bere gorputzetik produzitzeko gaitasuna duen heinean. Gizonak, ordea, kulturaren baitan produzitzen omen du, arrazoiaren ondorioz, ez da biologikoki naturak hala aginduta, duen gaitasun bat. Azalpen hau antzinakoa iruditu ahal zaigun arren, mendebaldeko pentsamendua banaketa honen gainean eraiki da bai bizitzako eremuei dagokionez, bai funtzio sozialei dagokienez ere.

Ideologia patriarkal honen baitan, **eremu publikoa eta eremu pribatua bi esparru banandu gisa** aurkezten zaizkigu. Eremu pribatuaren irudia familia eredu tradizionala da, ustezko armonia eta maitasunaren isla, emozioen eta afektibitatearen gordelekua. Eremu publikoaren irudia, aldiz, politika da, gauza publikoaren administrazioa: ekonomia, hiritartasuna, akademia... Arrazionalitatea da honen ezaugarri nagusia. Emakumeak, beraz, naturarekin erlazionatzen dira: erreproduktioarekin, senekin, sexualitatearekin, emozioekin, sentimenduekin... eta gizonak, aldiz, kulturarekin: arrazoitzeko gaitasunarekin, naturak ezartzen dituen senak gaintzeko gaitasunarekin, inteligentziarekin, zientziarekin... Hori dela eta, emakumeen berezko tokia edo eremu "naturala" familia litzateke, bertan funtzio erreproduktiboak betetzen baitituzte (horretarako ustezko gaitasun bereziak, naturalak eta biologikoak dituztelako). Aldiz, gizonen berezko tokia eremu publikoa eta honen administrazioa da, politika eta ekonomia euren funtzio nagusiak izanik. **Biak txanpon berberaren bi aldeak dira, osagarriak, laranjaren bi erdiak...**

Bikote harreman heterosexual hau sistemarentzat guztiz funtzionala da eta ezinbesteko hierarkia batean oinarritzen da: eskubideak eremu publikoaren jardunaren arabera izango dira (lan merkatuan izandako parte hartzearen

araberakoak: lanaldi osoan lan egiten badugu, eskubide gehiago izango ditugu, esaterako, pentsioak, diru laguntzak...). Hori horrela izanik, lan merkatuan eta eremu publikoan soilik eta eskusibotasunez jarduten duten pertsonak eskubidedunak izango dira, benetako hiritarrak. Haatik, eremu pribatuan kokatzen direnek eskubide eratorriak soilik izango dituzte (alargunen pentsioak senarren diru sarreraren %35 baino ez da). **Hortaz, eremu publikoa eta kultura gizonen esperientziekin erlazionatzen da eta eremu pribatua, natura eta ezberdintasuna** (eskubide eza) emakumeekin. Eremu publikoa ustezko eskubide unibertsalen eremua da, baina, gizonen esperientziaren arabera arauak dira unibertsalak direnak (gizon zuriak eta aberatsenak). Horregatik, emakumeak, arraza zurikoak ez direnak eta pobreak historikoki ez-hiritar gisa hartuak izan dira. Eremu publikoa eta pribatua harremanak daude, biak sistema beraren bi aldeak baitira. Sistemak biak behar ditu bizirauteko, baina aurrerago ikusiko dugunez, bata bestea baino baloratuagoa egotea interesatzen zaio.

Nola indartu da ideologia patriarkala?

Filosofia izugarriko eragina izan du ideologia horren hedapenean.

Mendebaldeko pentsamoldea Platonen ideietatik abiatu da. Pentsamendu dualista bere teorietatik abiatzen dela uste dute autore askok, izan ere, berak mundua bi errealitatetan banatu zuen: perfektua eta inperfektua. Baina filosofo handi gisa irakasten diguten honek, emakumeak pentsatzeko, arrazoitzeko eta eztabaidatzeko gizonak bezain egokiak ez zirela uste zuen. Beraz, jendarte perfektua irudikatu zuenean, eskasa izan zen emakumeak politikan izan beharreko paperari egin zion ekarpena. Izan ere, emakumeek komunitaterik gidatu ezin zutela zioen. Bere ikasle izan zen eta mendebaldeko klasiko bihurtu den Aristoteles, berriz, sexista konbentzitu zen. Bere ustez, emakumea fisiko zein psikikoki gizonekoa baino ahulagoa zen, eta horregatik gizonaren arrazoian menpe utzi behar zen emakumea, hark zaindu eta kontrola zezan. Gainera, Aristotelesen emakumearen ikuskerak aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen: emakumeari izandako antzinako errespetu eta miresmena mespretxu bihurtu zen. Ordura arte, emakumearen figurak nolabaiteko beldur edo errespetua eragiten zuen: misterioz, erotismoz eta jakintza zaharrez beteriko irudi bat zen. Aristotelesen ideiek, ordea, hori aldatu zuten.

Feminista askoren arabera, gure kultura **androzentrista** izatea, hau da, **gizonezkoa gauza guztien kanon eta neurri gisa hartzea**, bi filosofo horien pentsamendu eta garaien ondorio da. Izan ere, garai haietan gutxi gora behera, *"patriarkatuaren matxinada"* bezala ezagutzen zena eman zen: ordura arteko jainkoak emakumeak ziren, eta lurra eta naturarekin zuten lotura goraiatua zen. Azken batean, kultura haiek lurretik bizi ziren, eta lurraren emankortasuna emakumearen ugalkortasunarekin lotzen zuten. Baina jainko grekoekin hori aldatu eta antolaketa patriarkala ezarri zen, eta indarra eta arrazoia ordezkatzeko zituzten jainkosak rol maskulinoak zituztenak ziren (lehiakortasuna, maitasunaren ukazioa, gerra): naturarekin lotura zutenak bigarren maila batean geratu ziren, eta inola ere ez ziren gizonezkoak. Izan ere, emakumeari arrazoia ukatzeak indartu zuen **misoginia** garai haietan, hau da, emakumeekiko gorrotoa, eta

egun ere, askotan, emakumeon iritzi eta ideiak arrazionaltasunaren izenean mespretxatzen dira: oso sentiberak garela, emozioek itsutzen gaituztela, histeriko batzuk garela... Euren aurreko kulturekin alderatuz, erromatarrak eta greziarrak aski misoginoak izan ziren, eta emakumearen ustezko ahultasuna naturari egotziz, jendartearen eta familian funtzio zehatz eta zorrotz batzuk esleitu zitzaizkion, eta berauek bermatzeko, legez ezarri ziren. Kontuan izan behar dugu, gaur egungo mendebaldeko pentsamoldea garai hartako filosofoengan oinarritu den moduan, legedi eta jurisdikzioak ere, zuzenbide erromatarra duela aitzindari. Beraz, bi kultura horietan egindako generoen bereizketak lotura zuzena du gaur egun egiten dugunarekin.

Erdi Aroan generoen arteko bereizketa horretan sakondu egin zen. Maskulinitate eredu bakarra indartu zen (kanpoan lan egiten zuen gizona, gogorra, gerrarako prestua, ausarta, indartsua...) eta emakumea erreproduktziora mugatu eta etxeko zaintza lanen itzalpean giltzapetu zen, eredu bakar horri uko egiten ziotenak basaki jazarriak zirelarik. Euskal Herria ez zen salbuespen bat izan: sorginen ehiza, ehunaka emakumeren erreketak eta gaurdaino iritsi den pentsaera katolikoa...

Berdintasuna bandera eta ikur izan zuen **1789ko Frantziako Iraultzan** ere, berdintasun hori gizonezkoentzako soilik izan zen. **Rousseau**-ren berdintasun eta askatasun ideiek iraultzaren bultzatzaileak inspiratu zituzten, baina berak gizonezkoentzako soilik zituen buruan, emakumea eta gizona ez zituen parekatuz, eta azken hau bakarrik hartzen zuen hiritar eta eskubide zibil eta politikoen subjektutzat. Gauza bera esan dezakegu iraultza ostean boterea eskuratu zuen burgesiari buruz. Izan ere, nahiz eta emakumeek iraultzan zehar burututako papera oso garrantzitsua izan eta hainbat gertakari historiko beraiek bultzatu, iraultza gauzatzekoan, euren burkideek ez zituzten euren aldarrikapenak kontuan hartu. Horren adibide "Gizonezko hiritarraren oinarritzko Eskubideen Deklarazioa", eta hari erantzunez **Olympe de Gouges**-ek idatzitako "Emakume hiritarraren Oinarritzko Eskubideen Deklarazioa", zeinaren ostean gillotinatua izan zen.

Hiru filosofo aipatu ditugun arren, zoritxarrez **amaigabea da gure kultura patriarkala eta generoen bereizketa errotzen lagundu duten filosofoen zerrenda**: Hegel, Schopenhauer, Nietzsche... denak hezkuntza curriculum-etan "maisu" gisa ikasten ditugunak. Gizonezkoak izan dira eurek teorizatutako filosofian oinarritua, ideologia hegemonikoa sortu eta historia idatzi dutenak. Finean, boterea izan dutenak eta botere hori mantentzeko mekanismoak jarri dituztenak, ideologia sortu dutenak.

Hala ere, XIX. mendean, **genero zapalkuntzaren justifikazio soziala aldatu egin zen**: bereizkeria erlijio kristauan oinarritua izatetik, **zientzian oinarritzera** igaro zen. Horrela, bereizkeriari estaldura "objektibo" bat eman nahi izan zitzaion: osasun eta biologia zientziek gorputz "maskulino" eta "femeninoen" arteko desberdintasunean sakondu zuten, eta desberdintasun horiek baliatu zituzten generoaren naturalizazioa babesteko. Beraz, zientzien izenean, eta ezaugarri



biologikoak oinarri hartuta, garai hartako gizonen emakumeentzako patu biologiko eta sozial bakarra finkatu zuten: amatasuna. Eta horrela, ordura arte erlijioaren izenean burututako zapalkuntza, biologia aitzakia hartuta mantendu zen, amatasunaren ideian sakonduz emakumezkoaren genero eraikuntzarekin jarraitu zen: enpatia, maitasuna, besteekiko kezka, samurtasuna... Aipatzekoa da, garai bereberean zientzien izenean berdina egin zutela arrazarekin, horrela Ameriketara burututako genozidio eta zapalkuntzak justifikatzeko: arrazoi biologikoak oinarri hartuta, esklabotza eta indigenen lurren lapurreta zilegi bihurtu ziren munduaren begietara.

Ordutik hona, zientzia sistemaren intereseko funtzioak justifikatzeko erabili izan da: hilerokoaren minek ezegonkortu eta lanerako egokiak ez zirela; erditzeko gaitasunak zaintzarako abilezia eta sen naturalak zekartzala; uteroak histeria eragin eta sentimenduek itsutzen zituztelako bere kabuz arrazoitzeko gai ez zirela; anatomia eta arrazoi fisikoengatik *“sexu-ahula”* zela...

Eta nola bermatu da?

Genero banaketak emakume zein gizonen bizitza aurre-diseinatu du, eta sistemak tresna desberdinak jarri ditu bakoitzari dagozkion rolak eta funtzioak garai eta toki bakoitzari egokitzeko. Tresna eraginkorrena, ordea, indarkeria da. **Indarkeria, edozein sistema hierarkiko mantentzeko ezinbesteko tresna da**, beraz, indarkeria estrukturala da, sistema beraren ezaugarria da. Haatik, ideologia patriarkalak indarkeria estali eta aitzakia ezberdinak baliatu ditu hori justifikatzeko: indarkeria honen azalpen hegemonikoak biologiari, psikologiari eta indibidualtasunari egiten dio erreferentzia. Azalpen hauen baitan, gizonetzkoen jarrera erasotzaileak naturalizat hartzen dira eta faktore ezberdinak kausa gisa aurkezten dira, hala nola; alkoholismoa, estresa edota emakumeen intsumisioa. Aldiz, mugimendu feministak behin eta berriz azpimarratu duen moduan, **indarkeria matxista** kasuak ez dira isolatuak, pribatuak edota kontu pertsonalak, egunerokotasunean presente dauden elementuak dira. Gainera, maitasun erromantikoak bultzatzen dituen harreman ereduak indarkeria areagotzen dute, bikotearen gaineko *“jabetza”* sentimendua bultzatuz, baita horretatik eratortzen diren jarrerak ere (jeloskortasunak, mesfidantzak, kontrola, etab.). Bikote harremanez harago, indarkeria egunero presente dugu eremu guztietan (etxean, lantokian, eskolan, kalea...). Beraz, modu sotilean (begiradak, lizunkeriak, tratu txar psikologikoak) zein agerian (indarkeria fisikoa), egunero pairatzen dugun indarkeria da. Gainera, sistemak ez du ageriko indarkeriarik behar beratu mantentzeko, izan ere, egoera menperatzeko gai denak ez du indarkeria fisikoaren erabilpenik behar: mehatxu sinbolikoa nahikoa da. Hortaz, biolentzia fisikoa indarkeriaren azken muturra besterik ez da (icebergaren punta).

Indarkeria “sotil” honen baitan, kontrol soziala ezinbesteko elementua da, eta historian zehar, kontrol sozialerako tresna horietariko bat **legedia** bera izan da. Legeek emakumearen etxekotasunaren diskurtsoa arau bihurtu zuten, eta horrela emakumearen eremu pribatua legez finkatu, eta gizonetzkoari eremu publikoaren monopolioa eman zion. Lege horiek emakumearen eskubide

zibil eta politikoak ukatu zituzten. Bozkatzeko eskubide eza famatu egin den arren, emakumeak jabetza eskuratzeko, oinordetza bere tutoretza legala zuen gizonezkoaren baimen barik jasotzeko, hezkuntzarako, enplegua lortzeko... hamaika oztupo zituen. Eskubide politikorik ez izatearen ondorioz, emakumearen portaera eta rol-ak, generoa osatzen duten horiek berak, sistema juridikoak erregulatzen zituen, hau da, estatuak, eta eremu politikoa (publikoa den heinean) gizonezkoari zegokion heinean, gizonek osaturiko organo legegileek ezartzen zituzten betebeharrak horiek.

Ondorioz, **generoaren moral bikoitza lege bihurtu zen**. Genero bakoitzarengandik portaera desberdin bat espero denez, genero batek arau bat urratzea legearen arabera zigor zitekeen, eta besteak arau berbera urratuz gero ez. Horri erreferentzia egiteko sortu zuen Alexandra Kollontai marxista feministak moral bikoitzaren kontzeptua. Genero bakoitzak bete beharreko kode sexual bat du, eta bakoitzak jasoko duen zigorra, urratu dituen espektatiben arabera izango da. **Adulterioaren adibidea** oso ohikoa da: ezkontutako emakumeak bere senarra ez zen beste norbaitekin sexu harremanak izanez gero, zigorra oso gogorra izan zitekeen; eta senarra izanez gero ezkontzaz kanpoko harremanak zituena, emakumeak ez zuen dibortziatzeko aukerarik, senarraren baimenarekin ez bazen. Arau guzti horiek iraganean geratu direla sinestarazi nahi diguten arren, gaur egun ere, modu sotilago batean izan arren, moral sexual bikoitz hori indarrean dago lan kontratuetan, komunikabideetan... Gainera, legeak aldatu arren, praktika eta moral sexuala ez dira desagertu. Legezko babesak galdu dute, baina jendartean duten botere sinbolikoarena ez. Esaterako, adulterioaren adibidearekin jarraituz, fideltasunaren ideiak pisu moral handia du, baina emakumeei zorrotzago galdatzen zaie. Gizonezko bat fidela ez izatea sexu-grina handiari eta izaera aldakorrari lotzen zaio, garrantzia kentzeko.

Esan bezala, iruditegi kolektiboak berdina izaten jarraitzen du. Balore patriarkarrekin oinarritzen dute berdina-berdina. Garaiz garaiz emakumearen iruditegi kolektiboan aldaketak eman diren arren (etxeko aingerua, lana eta etxea uztartzen dituen emakume moderno...), amatasuna eta erreproduzio lanen funtzio hori sekula ez da hautsi, emakumeak ezarritako rol-ak berdina dira oraindik, maitasuna emakumearen bizitzaren erdigunean kokatzen jarraitzen da... eta kontrakoa saldu nahi diguten arren, beti bezain indartsu dago.

Gure egunerokotasunean genero sistema nola ezartzen da?

Banaketa horiek jaiotzen garen unetik hasten gara ikasten. Jaiotzean garenean ditugun genitalen arabera sexu bat ezartzen zaigu eta horren arabera generoa osatuko duten ezaugarri, rol eta funtzio batzuk ere. Ar edo eme garen esango digute, eta horren arabera, gizon edo emakume izan behar dugu. Bata edo besteari lotutako ezaugarri sozialak izan behar ditugu, bestela, ez gara "normalak" edo "naturalak" izango. Norbere identitatea eraikitzea prozesu izugarri konplexua da, eta genero ideologia hegemonikoak hori baliatzen du beste genero identitate aukera oro baztertzeko,, mundua genero maskulino edo femeninoaren arabera antolatuz.

Sexualitatea garapen psikiko baten ondorioa da, ez ordea, garapen biologikoarena. Umeak jaiotzen direnean, lehenengo faseetan bisexualak dira. Umeak, lehenengo sozializazioaren bitartez eta, batez ere, honen oinarria den hizkuntzaren bitartez, bi sexu-generoen arteko banaketa barneratu eta batean atxikitu behar direla ikasten dute. Umeek arau ezberdinak barneratuko dituzte, zeinak generoa duten oinarri eta horren arabera nola pentsatu eta nola jokatu behar duten ezartzen duten. Patriarkatuak genero maskulinoan ezartzen du arau unibertuala eta honen baloreen arabera funtzionatzen du.

Hortaz, genero sistemak zer nolako eragina dauka sexualitatean?

Bi genero soilik onartzea ez da kasualitate hutsa, giza erreprodukzioa bideratutako banaketa bat da. Izan ere, ez zaigu soilik emakume edo gizon, ar edo eme, izatea inposatzen: horrez gain, kontrako generoa desiratu behar dugula ezartzen zaigu. Ugalketa onartutako bi genero bakarren azalpen biologikoa indartzeko argudio nagusienetarikoa izan da. Espeziearen biziraupenerako emea eta arra sexualki harremandu behar izatea oinarri hartuta, lotura sexual eta afektibo/erromantiko posible bakarra emakumea eta gizonaren artekoa dela sinestarazi nahi izan digute. Historian zehar, heterosexualak ez diren aukerak jazarriak izan dira, baina ez da beti horrela izan. Izan ere, aski frogatua dago Grezian gizonezkoen artean sexu bereko amoranteak izatea guztiz onargarria zela, baita emakumeen artean ere (Lesbos irla esanguratsuan, hortik lesbiana hitzaren jatorria). Kristautasuna hegemoniko egin zenetik, ordea, bekatu larri bihurtu zen, jainkoaren eta naturaren kontrakoa.

Aukera sexual hori aukera bakar bezala barneratzeko, **hezkontzak** izugarritzko garrantzia izan du, baita hainbat mekanismoren bitartez iruditegi kolektibo indartsu bat sortzeak ere. Haurren testu liburu eta ipuinetan, telebistako iragarkietan, marrazki bidez, filmetan, aldizkarietan, eskolako testu-liburuetan, komunikabideetan... agertzen diren bikoteak heterosexualak izaten dira. Izugarritzko presio soziala egoten da gai honen inguruan, eta egun nolabaiteko onarpen soziala egon daitekeen arren, zaila egiten da oraindik heterosexualak ez garela onartzea. Edo homosexualak ez garela. Edo bi hitz horiek gure desirak definitzeko nahikoa ez direla onartzea. Askatasun faltsu bat da. Berdintasun faltsua hemen ere.

Heterosexualitatea ez diren gainerako aukerak baztertzeak gure kulturaren familiak duen paperari erantzuten dio, eta desira sexuala horren arabera eraiki da. Azken batean, desira sexuala ez da plazer hutsera bideratuta egon, hori bigarren mailako kontu bat izan da, ugalketa lehentasuna zelarik. Ugalketa helburu ez zuten sexu harremanak gaizki ikusiak izan dira duela gutxi arte. Bizioa ziren, bekatuak. Egungo gazteriak urruna sentitzen dugun arren, antisorgailuen onarpena eta zabalpena ez da hain kontu zaharra. Sexu harremanak ugaltu eta familia osatzeko ulertzen ziren, eta beraz, bikote barruan eman beharrekoak ziren. Eta bikotetik kanpo emanez gero, ezkondu eta familia sortu beharra zegoen. Familia zen helburua. Familia eta ugalketa.



Erreprodukzioa bideratutako sexualitateak **heteroarau** zorrotza inposatu du, eta mendez mende hori indarrean mantentzeko denetariko indarkeri sinbolikoa erabili izan da. Generoa antzesten ikasi dugun bezala, sexualitatearen elementuak ere ikasi ditugu. Heteroarauaren arabera, praktika sexual onargarri bakarrak emakumeen eta gizonen artekoak izango dira, gainerakoak ez dira normalak izango. Berrito ere normaltasunaren diktadura.

Giza sexualitatea erotismoari guztiz lotuta dago. **Erotismoa** sexualitateak eskaintzen duen plazera bizitzeko modua da: emozionalki, sentsualki, mentalki, sozialki... Bakoitzak gure erotika propioa daukagu: ibilera, estetika, ahots tonu, orrazkera, gorputz forma, jarrera, postura... desberdinek erakarri eta pizten dute guran sexu grina. Zenbat buru, hainbat erotika izan beharko genuke. Baina, zoritxarrez, ez da horrela. Erotismoa ere sinbolikoa da, eta beraz, sexualitatea bezala, eraikuntza sozial bat da, genero bereizketa oinarrizko baldintza gisa duena. Kultura bakoitzak, indarrean dagoen kultura politikoaren arabera, erotismo eredu hegemoniko bat du. Erotismoa, sexualitatea zein plazera, hirurak daude debeku eta tabu bidez kontrolatuak. Hemen ere, "normaltasuna" sinbolikoki inposatzen zaigu. Boterearen monopolioa duenak bere interesen arabera ezartzen du indarrean dagoen erotismo eredu. Horregatik, izugarritzko eragina du erotismoak aurre-ezarritako bi generoen artean harremantzeko eran. Iruditegi kolektiboa osatzen duen erotismoan bikote heterosexuala da protagonista, organo genitalen inguruan eraikitzen dira praktika sexualak... eta botere harremanak oso nabariak dira.

Bestalde, harreman homosexualak bere horretan ere ez dute zertan askeak izan. Azken batean, jendarte harreman guztiek sistemaren beharrei erantzuteko funtzio batzuk betetzen dituzte eta botere harreman batzuk erregulatzen dituzte. Ondorioz, harreman eredu berriak eraikitzerakoan NOREKIN galdera baino NOLA galdera garrantzitsuagoa izango da.

Harreman heterosexualak monogamoak eta ezkontzara bideratuak dira.

Harreman heterosexualak bikotea bideratuak dira, eta bikote hori jabetzan eta esklusibotasunean oinarritzen da. Gaur egun imajinario hori apurto denaren sentsazioa eduki dezakegun arren, **maitasun erromantikoa** oso barneratuta daukagun maitasunaren eta harremanen ulerkera da. Honen arabera, maitasun harremanak bestearen idealizazioan, erotizazioan, intimitate nahian eta etorkizunerako itzaropenetan oinarritzen ditugu. Ideologia hori ere txiki-txikitatiki ikasi dugu: printze urdinaren mitoa, emakumea babestuko duen gizon ausartarena, gizon galduari bidea aurkitzen lagunduko dion emakumea, oztopo guztiak gainditzen dituen amodio gaindiezinarena... ipuin, nobela eta filmen amaigabeko argudioa da, gure amets bihurtzen dena. Halako bikote harreman bat izatea helburu eta jendarteak inposatutako patua da, eta ez lortzea aldiz, bizitzan huts egitea. Bikotea ez izatea bakarrik egotearen sinonimoa dela sinestarazi digute.

Gainera, bikotearen partaide bakoitzari inposatu zaion generoaren arabera, rol batzuk ere ezarri zaizkio: emakumeon papera pasiboagoa izango da,

sexuari garrantzia gutxiago ematen diogula sinestarazi nahi digute, zaintzari eta bestearen beharrak asetzeko prestu egotea, bestearen hutsuneen aurrean pazientzia izatea... Gizonezkoarena aktiboagoa izango da, sexu grina handiagoarekin lotzen da. **Monogamia** hori fideltasunaren ideiarri lotzen zaio, bikote-kideari zor zaion fideltasuna. Gure sexualitatea bikotekidearekin soilik parteka dezakegu. Moral presio indartsua dago atzetik: sexua familiaren baitan gauzatutako ugalketara bideratuta dago, eta betirako izango den familia eta bikote horrek maitasuna izango du oinarri eta lotura. Horregatik, maitasuna eta sexualitatearen arteko ezinbesteko lotura irudikatzen da (Nork ez du sekula entzun: benetan maite dudan norbaitekin egin nahi dut txortan lehen aldiz; neska hori puta bat da, edonorekin ligatzen du...).

Sexualitate hegemonikoa guztiz koitozentrista eta genitalista da (falozentrista, egia esan) eta ugalketa du helburu. Iruditegi kolektiboa osatzen duten irudiek bi sexuren genitalak dituzte protagonista, eta praktika sexualak horien gainean eraikitzen dira, koitoa edo sarketa praktika nagusia delarik. Gorputzeko gainerako atalen plazererako gaitasuna deuseztatu egiten da horrela: are gehiago, organo sexual deitzen zaie organo genitalei, gorputzeko plazer iturri nagusia azala bera denean. Ez da kasualitatea, sexualitatearen gaineko ideia hegemonikoak ugalketara bideratuta baitaude; ez norberaren plazerera. Gainera, sexualitate inposatua koitozentrista den heinean, gure gorputzeko gainerako atalak baztertu egiten dira. Sexualitatea ulertzeko modu itxi eta murriztu horrek gure gorputza, gure sexualitatea eta gure plazera ezagutzea den gozamen izugarri hori ukatzen digu, eta horrekin, gure nortasuna eraikitzea oztopatzen digu. Azken batean, gure gorputzen gaineko kontrola eta ezagutza lapurtu dizkiguten arren, sexualitatea gure identitatearen parte da, ez da plazer hutsa. Identitate bat inposatzen zaigu, beraz.

Gure gorputzak ezagutzea kriminalizatzen dute. Masturbazioa esaterako, mutil nerabeen kasuan goraipatu egiten da eta gizontasunaren seinale da. Emakumezkoen masturbazioa, ordea, tabu bat da, oso gutxi aipatzen dena, eta ondorioz, emakumeak beranduago hasten gara masturbatzen (egiten dugunean). Ezjakintasun handiz egin ohi da gainera, gure buruengan konfiantza handirik gabe, egiten dugunaz konbentzituruta egon gabe... emakume asko sekula ez dira masturbatu. Masturbatzen diren askok, masturbatzeari uzten diote bikote formala dutenean, hark asetu behar dituelakoan.

Gure gorputza ezagutzeko hainbeste oztopo sozial (eta ondorioz, psikologiko) izateak, plazera zerk eta nola ematen digun ez jakitea dakar. Eta zelan esango diogu beste bati zer dugun gustuko, guk geuk ez badakigu?

Patriarkatuak emakumezkoen sexualitatea gizonezkoenaren arabera definitzen du. Esan bezala, gizonezkoak izango du paper aktiboa sexu harremanetan (koitoan sarketa berak burutzen du, berak du "kontrola") eta emakumezkoen papera haren desirak betetzekoa izango da.

Hala ere, emakumezkoak sexutik plazera jasotzea zalantzan jartzetik eta bere

desira estali behar izatetik, **hipersexualizatua izatera igaro da**. Sexua dagoeneko ez da ezkututzen, inguratu egiten gaitu: telebistan, merkatuan, publizitatean, filmetan... Sexua ikusgarri dago. Merkatuan produktuak saltzeko estrategia bihurtu da, eta era berean, sentsualitatea eta sexua bera merkatuko produktu bat gehiago bihurtu dira. Baina horrek ez du esan nahi emakumeak askeagoak garenik. Alde batetik, ezin ditugu gure desira sexualak gizonezkoek beste askatasunez adierazi, horregatik mespretxatuak izango ginatekeelako; baina bestalde, gizonezkoen nahien arabera beti sexurako prest egoteko eskatzen zaigu eta indarrean dagoen erotismo ereduaren arabera jokatzeari (gure bikoteari dagokionez sexu gosea izan behar dugu, arropa sentsuala eraman, besteak egin nahi dituen praktikak frogatzeko prest egon). Emakume multi-orgasmikoaren ideia zabaldu denetik, emakumeoi "orgasmoaren derrigortasuna" ezarri zaigu: sexu-harremanak izaterakoan orgasmora heldu behar gara bai ala bai, baina ez gure plazer hutserako baizik eta bestearen gizontasuna zein plazera emateko gaitasuna neurtzeko termometro bihurtu dutelako (gero eta orgasmo gehiago, orduan eta hobea gizona sexu-harremanetan).

Horrela, gure orgasmoak dagoeneko ez dira guretzako, guri plazera ematea ez den beste funtzio bat dute: ondokoaren autoestimua zaintzea. Hori emakumeentzako onuragarria izan beharko litzatekeela dirudi, sexu-kidea ahalik eta plazer gehien ematen ahaleginduko baita. Baina ez da hain sinplea. Bi aldeentzako presioa da. Alde batetik emakumearentzako, koittoa eta sexu-praktika "ohikoak" ez direlako emakume guztientzako plazera lortzeko egokienak eta ahalik eta orgasmo gehien izan behar dituelako presiopean. Orgasmorik izan ezean, hotza izango da, esker txarrekoa. Bestetik, gizonezkoarentzako ere presio handia da, sexualitateari dagokionez autoestimuan eragin handia baitu eta horrek frustrazio handiak eragiten ditu.

Indarrean dauden emakumeentzako edertasun kanonak ere erotismoaren elementu garrantzitsuak dira. Gure gorputzarekin gustura ez bagaude, konfiantza falta horrek sexualitatean itzulpena izango du (merkatuan izugarritzko dirutza mugitzen duen konfiantza falta, bide batez). Horregatik, beste sexualitate eredu bat eraikitzeko, gure gorputzen eta gure blazerraren kontrola berreskuratu behar dugu denok, baina batez ere emakumeok.

Sistemak eredu hori jarraitzen ez dutenak jazarri, zigortu edo baztertzeko dituzte. Horretarako denetariko mekanismoak daude: hezkuntza, familia, morala, medikuntza, biologia, psikiatria (moral kristauari erantzuten ez dioten praktikak gaixotasun gisa sailkatzeko)...

Hizkuntzaren papera nolakoa izan da genero sistemaren transmisioan?

Aipatzekoa da **hizkuntzak** berak identitateen eraikuntzan duen papera. Izan ere, familian, eskolan, kalean, aisialdi taldeetan... generoa inposatzen digute. Jaiotzean ditugun edo ikusten zaizkigun organo genitalen arabera, ezartzen zaizkigun sexu eta generoaren arabera portatzen irakasten digute: zelan mugitu behar dugun, zelan eseri behar garen, zein tonotan hitz egin, gure ideiak eta

sentimenduak nola adierazi... eta zein hizkera erabili. Hizkuntza zein hizkerak izugarritzko ahalmena dute ideologiaren transmisioan. Are gehiago, ideologiaren transmisiorako mekanismo nagusia da, ez baitu informazioa garraiatu soilik egiten, errealtatea ulertzeko modua ere transmititzen du, eta azken finean, errealtatea sortzen du. Ez da kasualitatea, gizonaren arabera eraikitako **kultura androzentrista** askotako hizkeran genero neutroa maskulinoa izatea. Maskulinoa hizkuntza askotan forma neutroa izateak, emakumearen ikusezintasuna areagotzen du, "besteak" kategorian agerian utziz. Horrez gain, hizkuntzak positiboa eta negatiboa dena adierazteko, genero bati lotzen diogun ezaugarriren bat erabiltzen du askotan.

Euskarari dagokionez, beti saldu nahi izan da euskarak genero neutrorik ez duen heinean, ez dela hizkuntza sexista. Are gehiago, euskara erabiltzeko abantaila moduan aurkeztu izan da argudio hori. Baina ez da egia. Genero neutroaz gain, hizkuntza baten beste hainbat elementuk egiten dute hizkera bat bai sexista baita homofobo ere. Positiboa eta negatiboa dena adierazteko, genero bati lotzen diogun ezaugarriren bat erabiltzen dugu askotan: koñazo, bat da aspergarria dena; alua tontoa dena; maritxua edo atzelaria emakumezkoari ezartzen zaizkion jarrerak erreproduzitzen dituen gizona, eta alderantziz matxorra... edo iruditegi kolektiboan homosexualitateari lotzen zaizkion praktika sexualak erabili zerbait ukatu edo mespretxatzeko: popatik hartzera joan... Hikaz bai egiten dugu genero bereizketa eta hedabideetan oso gaizki erabilia izan da, forma maskulinoaren onuran. Hala ere, hainbat eragilek apustua egin dute "egin zak/zan" forma erabili beharrean, "zank" bezalako formak erabiltzeko. Gainera, oso zaila da honen gaineko kontzientzia sortzea, hizkuntza ez dugulako gure pentsaera sortzeko tresna bezala ulertzen, jendartearen kanpo faktore gisa baino. **Deigarria da Euskal Herriaren kasuan, euskara gure herriaren oinarri eta mundua ulertzeko tresna gisa kokatzeko gai garela nazio zapalkuntzari dagokionez, baina izugarri kostatzen zaigu genero zapalkuntzan gure hizkuntzak jokatzeko duen paper garrantzitsuaz konturatu eta egin beharreko aldaketak egitea.** Azken batean, patriarkatuak euskararengan ere eragin du, gainerako eremuetan eragin duen bezala.

Horren adierazle dugu Euskaltzaindiak izen euskaldunak arautzeko erabili duen patroia. Izan ere, ordura arte euskal izen batzuek ez zuten generorik, esaterako: Amaiur, Hodei... bai mutilentzat bai neskentzat erabilgarriak ziren. Haatik, onartu berri den araudiarekin, ez dago genero guztientzako balio duen izenik. Izan behar dela ezartzen da eta neskentzat, ordea, Amalur. Hodei mutilentzat izango da eta Hodeia, neskentzat. Genero bereizketa eza onartezina da sistema patriarkalarentzat eta antza denez, Euskaltzaindia sistema patriarkala mantentzeko tresna berria dugu orain.

Ondorioz, jendarte ikuspegia eraldatzeko, hizkuntzan ere eragin behar dugu. Dena dela, ez da hutsetik hasten den lana. Izan ere, egon badaude eragileak aspalditik arazo honen inguruan lanean dihardutenak eta euskara ez sexistaren gidak edo laguntzeko tresna ezberdinak sortu dituztenak. ■

2. Eraikin ustelari mozorroa kentzen



3 ordu

Patriarkatua eta Kapitalismoa

Sistema oso bat eraiki eta elkar elikatzen duten bi kontzeptu ditugu hauek. Gure pentsamendua, erabakiak, nahiak, harremanak eta bizitza zehazten dutenak. Zer eraikitzen dute? Zein zapalkuntza sortzen dute? Zein da hauen arteko harremana?

Ezagutu dezagun sakonki eraikin ustel hau, hobeto jakingo dugu horrela zapaltzen gaituena apurtzen, eta lurzoru emankorrangoan denontzako justuagoak izango diren hormak altxatzen.

Ikuspegi, norabide eta helburu ugari ardatz hartuta, zenbatezina da gai honen inguruan historian zehar idatzi dena. Horregatik, ez gara orain kapitalismoaren zein sozialismoaren inguruan sakon eta luze teorizatzen hasiko. Eraikin honen sakontasuna ezagutu baino, eraikin honen logikari begira jarriko gara. Horretarako proposatzen diren ariketa hauek honako **helburuak** dituzte:

- Bi kontzeptu hauetan sakontzea, ezagutzea.
- Kapitalismoak patriarkatua behar duela ulertzea.
- Aberastasuna, produkzioa eta lan banaketaren oinarrian sexu banaketa dagoela ondorioztatzea.
- Familiak eta harreman ereduak duten funtsezko izaera kokatzea.
- Lan erreproduktiboaren aitortzaren garrantzia azpimarratzea.
- Harreman eredia eta zaintza, jendarte eraldaketarako ardatz gisa kokatzea.

Ariketak:

13. Lan banaketaren inguruko hausnarketa. (40 min)

Lehenengo, aurreko ataleko etxerako lanen berrikuspena egingo dugu. Horretarako, eremu bat aztertzen hasiko gara (kalea, etxea edo bilera): eremu hori aztertu duen norbait berak behatutakoa eta horren ondorioz hausnartutakoa botako du, eta besteak ere euren hausnarketak gehitzen joango dira.

Ondoren, beste eremuak landu ditugunok ere gure ekarpenak egin ahal izango ditugu, edo ados gauden ala ez eztabaidatu.

Lehenengo eremuarekin bukatzerakoan, hurrengoari ekingo diogu, eta berdina egingo dugu hirugarrenarekin ere.

Azkenik, eztabaida eta ondorioak ateratzeko galderak egingo ditugu: Zeintzuk dira lan errekonozituak edo prestigiodunak? Zeinek du karga gehien? Zergatik? Zein ondorio du banaketa honek?

14. Bideo eztabaida. (30 min)

Patriarkatua eta kapitalismoa. Bideoa ikusi eta eztabaidatu egingo dugu.

15. Murala. Kontzeptuen mapa. (30 min)

Ereindako ideiak finkatzeko, mural handi batean irudikatuko ditugu, bisualki barneratzeko.

Ondoko kontzeptu hauek hartuta, orain arte bidean topatu ditugun esanahi eta ulermenak bateratuko ditugu mural batean. Agian kontzeptu batzuen esanahia ez dugu ezagutuko, eta horretarako baliatuko dugu material kutxan dagoen hiztegia.

Kontzeptuak paperetan idatzita egongo dira, horman itsatsi ahal izateko eta eztabaidan zehar euren kokapena aldatu ahal izateko:

Sexua, generoa, patriarkatua, sexismoa, feminismoa, matxismoa, androzentrismoa, berdintasuna, femenoa, parekidetasuna, kapitalismoa, maskulinoa, lan erreproduktiboa, familia, bikotea, heteronorma, estatuak, etekina, kontsumoa, lan produktiboa, lana, enplegua.

Nahi izanez gero, eskema egindakoan, hitz gehiago sar ditzakegu, osatuago gera dadin.

16. Etxerako lana: ikerketa. (5 min)

Binaka jarriko gara etxeko lanak garatzeko.

Hau da egingo duguna: Kantu, iragarki, telesaileko eszena bat, ipuin, albiste... zehatz bat aukeratuko dugu sakonean aztertzeko. Gure aukeraren elementu patriarkalak aztertuko ditugu: estereotipoak, sakoneko mezua, baloreak...

Adibideak: Anje Duhalderen "eperrak" kantua: "birjintasunaren balio kristauak gure kulturaren oso barneratuak ditugu" / ideia osagarritu materialarekin: emakumea, naturarekin parekatzen duen ideia purua... gaur egun nola garatzen den...

Hesian taldearen "Galduta" kantua: "erotzen ari naiz/ erantzun bakar batengatik/ bizitza ematen/ zurekin egoteagatik./ Galtzen ari naiz./ Itotzen ari naiz..."

16. Ondorioak eta balorazioa. (10 min)

Nik: norberaren koadernoan prozesuaren garapenaren alde negatibo eta positiboak baloratuko ditugu Norberaren ahalduntzea kontuan izanda. Aurrerapenak eta ikusitako oztopoak, sentipenak, sentsazioak, zalantzak...

Taldean: lan estiloa, parte hartzea, konpromisoa, metodologia, edukia, harremanak, giroa, eragina, ekarpena...

2.

**ERAIKIN
USTELARI
MOZORROA
KENTZEN:**

PATRIARKATUA ETA
KAPITALISMOAREN
ARTEKO HARREMANA

Sexu-genero sisteman oinarrituta dagoen patriarkatuak ez du modu isolatuan funtzionatzen, kapitalismoari moldatu eta bi sistemak elkar elikatu egiten baitira. Hurrengo lerroetan, bi sistema hauen ezaugarriez eta harremanez jardungo gara.

Nola definitu dezakegu kapitalismoa?

Kapitalismoak, hitzak adierazten duen moduan, **kapitala du oinarri**. Gizarte sistema honetan, beraz, pertsonak erdigunean egon beharrean, kapitalaren metaketa dago. Ekoizpenaren, banaketaren eta truke bideetan **jabego pribatua** eta merkataritza librean oinarritzen den ekonomia eta jendarte sistema da. Kapitalismoak ondasun metaketa du helburu, eta beraz, produzitzen dena ez da erabilerara bideratzen, metaketa hutsera baizik. Hau da, ez da ekoizten behar bat dagoelako eta produzitutakoa behar hori asetzeko erabiliko delako: produkzioaren helburua soilik kapital gehiago metatzea da. Kapitalistek ekoizpenerako bitartekoen jabe dira, eta honekin batera, salneurriak ezartzeko askatasuna da haien tresna nagusia. **Kapitalismoaren helburu nagusia, beraz, ahalik eta etekin handiena ateratzea da**. Horregatik, ondasun metaketa beste edozer eta edonoren gainera jartzen da, pertsonen eta amalurraren zapalkuntza baliatuz helburu goren hori lortzeko.

Kapitalismoaren garapenean bi klase sozial sortzen dira: batek ekoizpen bitartekoen jabetza dauka, eta besteak, bere lan indarra salduko du. Ekoizpen bideen jabeek (hau da, kapitalistek) ahalik eta kapital gehien metatzeko, lan indarra saltzen dutenei (langileei) ekoiztu dutenaren truke soldata bat emango diete. Haatik, soldataren zenbatekoa ekoiztu duten ondasunak merkatuan balio duena baino gutxiagokoa izango da. Hortaz, kapitalistek langileen lan indarraren esplotazioaren bidez gainbalioa edo **plusbalioa** aterako dute, hau da, langileari ordaindu zaionaren eta produktua merkatuan saldu den prezio altuagoaren arteko aldea. Kapitalistek langileei soldata emango diete azken horiek biziraun ahal izateko eta horrela lan indarraren eskaintza mantentzeko. Hala ere, soldata horiek ez dute biziraupen duina bermatzen. Orduan, zergatik kapitalistek edo enpresaburuek ez diete langileei gehiago ordaintzen? Jakin badakigu etekinak ateratzea dela euren azken helburua baina lan indarrak gabe ezingo dituzte etekinak metatu. Horregatik, soldatak ezinbestekoak dira, baina ahalik eta gehien murrizten dituzte, langileen lan indarra bermatzeko, baina kostuak gutxituz.

Era berean, kapitalistek badakite etxeko eremuan egiten diren lan erreproduktiboak ezinbestekoak direla lan indarra erreproduzitzeko, eta gainera, lan honen truke ez dela soldatarik jasotzen. Beraz, kapitalistek ez dute soldatekin soilik ateratzen gainbalioa: kapitalismoa patriarkatuarekin elkarlotzen den heinean, enpresaburuek etxean burutzen den lanetik ere gainbalioa aterako dute, lan horiek ere ezinbestekoak direlako ekoizpenerako (norbaitek hezten ditu langileak, norbaitek prestatzen du janaria, norbaitek betetzen du hozkailua, norbaitek garbitzen du etxea... 8 ordu lanean emanda ere, bere beharrianak ase daitezten).

Nola definitu dezakegu patriarkatua?

Etimologikoki patriarkatua “patriarka” hitzetik eratortzen da, honek “aitaren” (pater) botereari erreferentzia egiten dio, emakumeen eta gazteen gainetik ezartzen duen botereari, hain zuzen ere. Teoria feministak definitu duen moduan, patriarkatua emakumea sistematikoki dominatu, esplotatu eta zapaltzen duen egitura soziala da; gizonak emakumeen gain ezartzen duten dominazio edo zapalkuntza sistema da, alegia. Andrea D’Atri teorikaren arabera, perspektiba marxistatik zapalkuntza sistema eta esplotazioa bereizi behar ditugu. Lehenengoa arrazoi kultural, sexual, arrazial edota politikoengatik talde edo kategoria batzuen artean dagoen botere harremana da. Bigarrena, berriz, botere harreman horrek eraginda, kategoria horietako batek beste baten lan indarra baliatuz ateratzen duen onura da. Esaterako, klaseen artean botere harremana dago eta klase menperatzaileak (ekoizpen bideen jabeak) klase menperatuaren indarra baliatzen du hauek ekoizteko eta bera plusbalioarekin aberasteko. Era berean, klase baten barnean, beste egiturazko zapalkuntza batzuk egon daitezke. Genero zapalkuntzaren ondorioz, klase zapalduko kategoria menperatzaileak (gizonak) onurak lortzen dituzte kategoria zapalduaren (emakumeak) lan indarrari esker (zaintza lanak). Emakumeak parez pare dauden talde sozialen parte dira, baina ez dira klase bereizi bat, klasearteko sektore zapaldu bat baino.

Patriarkatuaren oinarrietan elementu ezberdinak topatu daitezke: alde batetik, elementu **ideologikoak**, hauek gure gizartean guztiz sustraituta daude eta askotan zailak dira identifikatzeko, beste zapalkuntza batzuekin alderatuta patriarkatuaren balioak modu inkontzienteagoan edo sotilagoan ezartzen direlako, generoaren araberrako sozializazioan hain zuzen ere. Beste alde batetik, aspektu **biologikoak** ditugu, ezaugarri biologiko konkretu batzuetatik sexu sailkapen bat eraikitzen delako eta sailkapen honi ezaugarri sozial konkretu batzuk ezartzen zaizkielako (genero rolak), beraz, aspektu **sozialak** ere baditu. Aspektu sozialei loturik, aspektu **kulturalak** aurkitu daitezke eta hauen bitartez emakumearen gaineko irudi eta identitate ezberdinak eraikitzen dira. Gehienetan, ordea, emakumearen identitatea amatasunarekin eta erreproduktzioarekin lotzen da, gizartearen edo aberriaren zaintzaile gisa irudikatzen da (hizkuntzaren eta kulturaren transmisiorako pertsona, hurrengo belaunaldiak erreproduzitzeko dituen) eta betiere identitate pasibo eta sumisoarekin lotuta dago. Horiez gain, patriarkatuaren aspektu **ekonomikoak** garrantzitsuak dira: kulturalki emakumeei esleitutako lanak (etxeke eta zaintza lanak) ez ordainduak eta gutxietsiak direlako, sistema bera bere osotasunean mantentzeko ezinbestekoak direnean. Azkenik, aspektu **psikologikoak** aipatu daitezke, txikitatik barneratutako balore patriarkalak gure buruetan eragina dutelako, (gure autoestimuan, desioan, afektibitatean,..) baita gure gorputzetan ere (jarrerak, hizkerak,..). Beraz, patriarkatua ez da eremu ideologikoan garatzen soilik, **oinarri materiala du**: sistema patriarkalak emakumeengan ezartzen duen lan indarraren kontrola, lanpostu duinei sarbidea ukatuz eta etxeke eta zaintza lanen gaineko ardurak guztia ezarriz, hain zuzen ere.

Honegatik guztiagatik, **patriarkatua generoaren araberako sistema hierarkiko bat dela esan daiteke, zeinetan emakumea zapaldua den eta gizona pribilegiatua eta zapaltzailea**. Izan ere, aurretik aipatutako patriarkatuaren ezaugarri ezberdinek gizonetako pribilegiatu izatea ahalbidetzen dute, hau da, ideologia patriarkalak balio maskulinoak goraiatzeko dituzten, sozializazio maskulinoaren bitartez, gizonen pribilegio ezberdinetarako aukera izango dute (lan postu duinak, etxeko eta zaintza lanetan ardurarik eza, boterea, eremu publikoan eta kulturaren protagonismoa,..).

Nolakoa da bien arteko lotura?

Kapitalismoa eta patriarkatua sistema malguak dira, aldakorrak, ez dago kapitalismo edo patriarkatu "pururik"; egon daitekeena kapitalismo patriarkal bat, feudalismo patriarkal bat, sozialismo patriarkal bat... da. Jendarte batek, beraz, kapitalismotik sozialismora doan trantsizio bat bizi dezake, baina patriarkala izaten jarraitu. Kapitalismoaren garapenean, langileen arteko hierarkia sortzen da, zeinetan langile batzuk lan postu hobekien eskuratzen dituzten eta beste batzuek eskasagoak (inork bete nahi ez dituen lanak). Baina, zein ezaugarrien arabera osatzen da hierarkia hau? Zoritxarrez, orain arte teoria marxistak pista gutxi eman dizkigu gai honen inguruan, bi klaseen arteko zapalkuntzaren azterketan zentratu baita. Aldiz, feminismo marxista eta antiimperialistaren analisiak erakusten digute genero eta arraza hierarkiek determinatzen dutela "inork nahi ez dituen" lan postu horiek nortzuk beteko dituzten. Kapitalismoak aurreiziazko egitura sozialetara (patriarkala eta arrazistara) moldatzeko gaitasuna dauka, hortik, gaur egun migranteek betetzea inork bete nahi ez dituen lanpostuak eta are gehiago, emakume migranteak.

Patriarkatua historian zehar bai forman zein intentsitatean aldatu da beste sistema hierarkiko batzuetara egokitu. Horregatik, patriarkatuaren elementuak klasearekin, arrazarekin, nazionalitatearekin, aukera sexualarekin, adinarekin... elkarlotuta daude. Sistema kapitalista eta patriarkalean, gizonen ezaugarri "idealak" (rol maskulinoarenak) eta kapitalismoak goraiatzeko dituenak bat datoz: lehiakortasuna, efektibitatea, autoritatea, dominazioa... Ezaugarri horiek dituztenei abantailak eta pribilegioak eskainiz. Lehen aipatu dugun legez, genero roletan oinarritutako sozializazioaren arabera, ezaugarri femeninoak irrazionalak eta emozionalak dira eta maskulinoak arrazionalak eta pragmatikoak.

Gaur egun, generoen arteko berdintasunean bizi garela saldu nahi digute, emakumeek lan merkatu sarbidea dutelako eta gainera, enpresariak izateko aukera dutelako. Aldiz, begirada kritiko batetik abiatuta erraz ikus dezakegu argudio honen faltasak: gaur egun emakumeek lan merkatuan presente daude mugimendu feministaren borroka esker, hein handi batean. Hala ere, honek ez du esan nahi aukera berdintasunean parte hartzen dutela, izan ere, emakumeek oraindik lan erreproduktiboaren ardura soziala dute eta horretxegatik, lan merkatu sartzen direnean bi lan karga hartu beharko dituzte euren gain: enpleguarena eta etxeko eta zaintza lanena. Hortaz, denbora neurritzat hartuz, guztira emakumeek gizonen baino lan ordu gehiago sartzen dituzte. Fenomeno



honi teoria feministek **“presentzia edo lan karga bikoitza”** deritzote eta askotan azpimarratu duten legez, egoera honek ondorio negatiboak dakartza emakumeentzat: bi lan kargak egunerokotasunean uztartu behar izateak gainontzeko jardueretarako denborarik ez izatea suposatzen duelako (ez aisialdia, ez norberarentzako denbora, ez militantziarako ere). Gainera, etxeko eta zaintza lanen eta enpleguaren arteko uztarketa emakumeen arduraren indibidualtza hartzen da, horregatik, uztarketa on baterako neurririk egokienak lan kontratu partzialak eta denboralak direla azpimarratzen da (egoera prekarioetan lan egitera behartuz). Horrez gain, enpresariak izatera heldu diren emakumeak balio maskulinoetara moldatu behar izan dira enpresen jardunean baloratuak izateko (militantzian ere asko ematen den fenomeno da), eta honek gehienetan seme-alabak izateari uko egitea suposatzen du (eredu maskulinoan zaintzak sartzen ez direlako), baita praktika zapaltzaileak barneratzea ere. Hala ere, enpresariak izatera heldu diren emakumeak salbuespena baino ez dira, ez direlako orotara %2ra ere heltzen, **“beirazko sabaia”** izenarekin ezagututako **diskriminazio bertikalak** (behetik gora igotzea oztopatzen duenak) indar handia duelako gaur egun.

Historian zehar etxeko eta zaintza lanen gutxiespena nola burutu da?

Etxeko eta zaintza lanek pertsonen beharrianak asetzen dituzte egunerokotasunean. Beharrian hauek bi dimentsio daukate, bata objektiboa eta bestea subjektiboa. Lehenengoak beharrian biologikoei egiten dio erreferentzia – jatea, lo egitea, higiene pertsonala etab.- eta bigarrenak, zaintzei, afektuei, segurtasun psikologikoari, harremanen eta loturen sorrerei... egiten die erreferentzia. Beraz, esan dezakegu **etxeko eta zaintza lanek pertsonen egunerokotasunean ongizatea bermatzen dien eta gehien bat emakumeek burutzen duten jarduna dela esan dezakegu**. Baina honek ez du esan nahi emakumeek soilik bete ditzaketela gaitasun berezi eta biologikoak dituztelako, baizik eta kulturalki emakumei esleitutako lana izan dela. Hau da, emakume identitatearen eraikuntza amatasunaren ezaugarri konkretuekin lotu baita, hala nola; haurren hazkuntza, maitasuna, etxea...

Edozein jendartetan, emakumeen lanaren ekarpenik gabe familien biziraupena ezin izango litzateke bermatu. Hala ere, sistema ekonomikoak autonomo gisa aurkeztu izan dira, etxeko eremuan burutzen den lan guztia ezkatatuz, behar ez balute bezala. Tradizionalki, **lanaren definizioa soilik eremu produktibora mugatu da** (Adam Smith, Karl Marx,.. adibide) eremu pribatua eta etxekoa alde batera utziz. Hori dela eta, lana soilik soldata baten truke egiten den jardueratzat hartu da. Honek bi arrazoi dauzka: bata, ideologikoa (zientzia eta kultura botere maskulinoaren arabera eraiki direlako) eta bestea, ekonomikoa (emakumeek kapitalismoaren garapenean sortzen diren kosteak euren gain hartzen dituztelako). Zentzu honetan, sistema ekonomikoek lan indarraren erreproduktzioa bermatu dute emakumeek familien baitan burutzen duten lan erreproduktiboari esker. **Beraz, etxeko eta zaintza lanen gutxiespena eraikuntza kulturala da.**

Industrializazio aurreko etxeetan, bai funtzio produktibo zein erreproduktiboak burutzen ziren. Etxea bizilekua izateaz gaindi, lantokia ere bazen. Horrela, testuinguru batzuetan emakume askok beren seme-alabak era intentsiboan zaintzea oztopatzen zieten lanak zituzten, hori zela eta askok zaintza lan hauek kanpoan kontratatzen zituzten. Antzinako erregimenetik gizarte liberalerako trantsizioan, sortu berria zen burgesiak gizarte berri baten oinarriak ezarri zituen. Horietan, sexuen arteko harremanen artikulazioa eta familiaren zein emakumeen papera eztabaidatu zituzten. Beraz, trantsizio horretan, generoen arteko harremanen berdefinizio bat burutu zen erreproduktio soziala momentuko eztabaiden erdigunean kokatuz. Aipatu beharra dago, generoen arteko harremanen berdefinizio hori ez zela prozesu harmoniatsua suertatu, gatazka handiak sortu baitzituen. **Emakumeek etxetik kanpo lan egitea “arazo” sozial gisa definitu zen**, nahiz eta historian zehar emakumeek bai lan produktiboak zein erreproduktiboak bete izan dituzten, bai etxean bai etxetik kanpo ere.

Kapitalismoaren eta industrializazioaren garapenaren ondorioz, populazioaren proletarizazioa eta urbanizazioa hedatu ziren. Prozesu horrek **bizitokia eta lantokiaren banaketa** eragin zuen, familiaren bizimoduan aldaketa nabariak sortuz. Gainera, prozesu horren bitartez, produkzio eta erreproduktioaren antolaketa eredu berri bat ezarri zen; bi unibertso banandu eta asimetrikoetan artikulatuta zegoena eta emakumeen eta gizonen segregazioa suposatu zuena, emakumeak merkatu laboraletik baztertzuz. **Antolaketa berri honek publiko eta pribatu eremuak kontrajarriak bailiran aurkezten zituen, bata gizonezkoei zegokiena (publikoa) eta bestea emakumeei zegokiena (pribatua)**. Burgesiak, lanaren sexu bereizketan oinarritutako familia erlazio berriak inposatu zituen eta emakumearen toki “naturala” etxea izan behar zela defendatu zuen. Bertan bere “funtzioak” bete beharko zituen, hau da, amatasuna eta etxeko eta zaintza lanak. Azken horiek seme-alaben zein pertsona zahar eta gaixoen zaintzak barnebiltzen zituen, baina baita gizon helduen gaineko zaintzak ere. Beraz, emakumeei identitate berri bat ezarri zieten amatasuna erdigunean kokatuz, horregatik, garaiko mediku zein estatistek gogor kritikatu zuten etxeko zerbitzua edo mirabeak erabiltzea seme-alaben zaintza eta heziketarako, lan horiek emakumeen “berezko” zeregin gisara jotzen baitzituzten. XIX. mendean fabriketako lanorduak luzatu ziren, hori zela eta, emakumeei ezinezkoa bihurtu zitzaien ordaindutako lana eta etxeko eta zaintza lanak uztartzea familiaren edo bizilagunen laguntzarik gabe.

XVIII. mendearen amaieratik pentsamendu ekonomikoak etxeko eta zaintza lanen gutxiespenari indar handia eman zion lana soilik merkatuarekin eta soldatarekin lotuz. Hori zela eta, **etxeko eta zaintza lanak burutzen zituzten emakumeak, soldatapekoak ez zirenez, “etxeko buru” baten “menpeko” gisa ikusten zituzten**. Gutxiespen hori, aldiz, garaiko zientzialariek, politikoez zein medikuek azpimarratutako etxeko eta zaintza lanen garrantziarekin kontrajartzen da. Horiek familien ongizatea eta bizimaila mantentzeko ezinbestekotzat jotzen zuten emakumeen lan erreproduktiboa, haatik, emakumeek merkatutik at mantentzeko **“soldata familiarra”** aldarrikatzen zuten gizonezkoentzat, hau da, familia ekonomikoki sostengatzeko soldata bakarra. Hala ere, esan beharra

dago "etxeke andrearen" eredu ideal hori soilik aplikatu zitekeela burgesiaren zirkuluetan. **Langile mugimenduak**, lan horiek emakumearen arduratzat jotzen zituen, horregatik, salbuespen batzuk kenduta, sindikatu gehienek emakume ezkonduak lantokitik kanporatzearen alde aurkeztu ziren.

Beraz, patriarkatua existitu ezean, langile klaseak kapitalismoari batasunez aurre egin ahalko zion, harreman patriarkalek aldiz, langile klasea zatitu zuten. **Gizon langileek emakumeekin batera soldata berdinen alde borrokatu beharrean, soldata familiarra aldarrikatu zuten familiaren diru sarreren monopolioa eurentzako aldarrikatuz**. Kapitalistak ere, langile klasea erreproduzitzeko orduan zeuden arazoez jabetuta, langileak erreproduzitzeko (lan indarra) eta osasuntsu mantentzerako orduan etxeke andrea emakume langilea baino askoz eraginkorragoa zela ohartu ziren. Hori zela eta, **kapitalistek zein gizon langileek soldata familiarren alde egin zuten. Finean, soldata familiarrak gaizki ordaindutako lanak emakumeei, gazteei... bideratzea suposatzen du**, horien soldatak "osagarriak" edo "bigarren mailakotzat" jotzen baitira. Beraz, emakume baten soldatak ezingo du familia oso bat mantendu. Beste alde batetik, soldata baxuenak gizarte sektore batzuei ezartzeko **lanpostuen bereizketa** ezartzea ezinbestekoa da, hau da, emakumeek orokorrean genero "femeninoari" esleitutako lanak burutuz (gaizki ordainduak daudenak) eta gizonak genero "maskulinoari" lotutakoak (lan postu duinak direnak orokorrean). Bereizketa honek sektore sozial batzuen dependentzia ekonomikoa bermatzen du (emakumeak eta gazteak) eta gizonen abantaila materialak ziurtatzen ditu (soldata altuagoak), pobrezia feminizazioa eraginez. Hau guztia kontuan hartuta, **emakumearen lan erreproduktiboari esker kapitalak lan indarra bermatzen duela eta gizonak pribilegiatuak direla esan dezakegu**. Izan ere, kapitalak lan indarraren erreprodukzioa inolako kosterik gabe bermatzen du (horrela plusbalioa ateraz) eta gizonak eremu erreproduktiboan ez dute inolako ardurarik hartzen.

Laburbilduz, **gizarte kapitalista eta patriarkar honen oinarrian dagoen familia eredu bi figura sozial daude: "gizona etxeke burua - emakume etxeke andrea"**. Eredu honek, kontratu sozial baten itxura hartzen du: emakumeek gizonezkoen beharrianak bermatzen dituzte azken horiek beren hiritartasun eta lan ordainduaren baldintzak bete ahal izateko. Izan ere, gizonezkoek ezin dute ordaindutako lanari eta eremu publikoari dedikazio osoa eskaini, emakumeren batek beraien beharrianak asetzen ez badizkie. Hau da, emakumeek betetzen dituzten lan erreproduktiboak Adam Smith-ek deskribatutako "esku ikusezinen" papera betetzen dute: egunero, urteko 365 egunetan zehar, janaria prestatu, arropa garbitu, etxea txukundu, zaindu, segurtasun psikologikoa eta afektiboa bermatu... egiten dutelako. Lan horiei esker eskaini ahal dizkiogu egunero 8 ordu enpleguari. Horregatik, langile figura honi Amaia Pérez Orozco-k "txanpiñoi langilea" deritzo eta honela deskribatzen du:



“Soldatapeko langile idealaren figura betetzen duen hiritarra, enpresarentzako ehuneko ehunean erabilgarria, egunero garbituta eta plantxatuta lurretik ernaltzen dela dirudiena; inor zaintzeko ardurarik gabea, beharrian propiorik gabea. Inork erditu ez duen, inork zaindu ez duen, inor zaintzen ez duen, gaixorik jartzen ez den hiritar txanpinoi hau, merkatuan sartzeko jaiotzen dena eta bertatik ateratzerakoan hiltzen dena”
(Perez Orozco, 2006:3)

Feminismotik nola ulertzen da ekonomia?

Hori guztia kontutan hartuta, ikuspegi feminista batetik **ekonomia bere osotasunean ulertzeko irudi eta metaforarik egokiena izeberga dela baieztatu daiteke**. Metafora honek argi erakusten du sistema honetan ezinbestekoa dena ezkutatuta dagoela (emakumeei historikoki esleitutako lan erreproduktiboak, egunerokotasunean biztanleriaren ongizatea bermatzen dutenak). Horrez gain, ikus dezakegu bi esfera horiek (ikusten dena eta ezkutatuta dagoena) egitura beraren parte direla, beraz, harremanetan daude. Gainera, ez daude maila berdinean: hau da, **bigarrena egitura ekonomiko guztiaren oinarria da** eta sistemak funtziona dezan ezkutatuta mantendu behar da (izebergaren metaforan, uraren azpian dagoen zatia handiak zati txikia mantentzen du). Izeberga, beraz, nahiz eta osotasun bat izan, bi zatitan bereizten da: alde batetik, diru ekonomia dago, eremu publikoan kokatzen dena eta beraz, ikusi daitekeena (BPGan neurtzen dena); eta bestetik, diru ekonomiatik at dagoen eremu pribatu eta ezkutua dugu. Azken horretan, etxeko eta zaintza lanak kokatzen dira, baina baita soldata baten truke burutzen ez diren beste jarduera batzuk ere, hala nola, borondatezko lanak edo herritarren parte hartzea (militantzian burutzen ditugun lanak ere jendartearentzako zerbitzuak baitira, hau eraldatu eta hobetzerantz bideratuta daude eta). Esan beharra dago, **zatiketa hori nolabait irekita dagoela eta ezegonkorra dela**, hau da, ezkutuko zatian dauden jarduera batzuk momentu batean ikusarazi daitezke, eta alderantziz. Esaterako, etxeko eta zaintza lanak burutzeagatik soldata bat jasotzen denean ikusarazten dira; hala ere, horrek ez du esan nahi aitortza soziala dutenik eta beraz, lan duin bat osatzen dutenik. Zentzu honetan, “lurperatutako” ekonomia, izebergaren zati ezkutuan kokatuko litzateke.

Nolako da bikotea, familia eta estatuaren arteko harremana?

Bikotea, familia eta estatuaren arteko lotura ezinbestekoa da sistema hau sostengatzeko. Esan bezala, sistemak ez du edozein bikote eredu sustatzen: erreprodukziora bideratutako bikote heterosexual eta monogamoa baizik. Beraz, gizona eta emakumezkoak harreman afektibo sexualak bikotearen baitan garatzera bideratzen gaituzte, erreproduzitu eta familia bat osatzeko. Horretarako, txikitatutako barneratzen dugun harreman afektiboaren eredu maitasun erromantikokoaren ideian oinarritutakoa da. Betirako maitatuko dugun eta osagarrituko gaituen gizon edo emakumea bilatu behar dugula ikasten dugu, berarekin familia osatzeko. Horrek emango baitigu bizitzan zorientasun gorena. Norberaren garapen pertsonalean urrats bat gehiago bailitzan, betebeharrak

sinboliko horrekin bonbardatzen gaituzte txikitatik hasita eskolan, ipuinetan, nerabeentzako aldizkarietan, nobela zein filmetan, familia nuklearra argazkietan etengabe azaltzen den testuliburuetan, oporretako katalogoetan, iragarkietan... Bikotea eta familia eredu zehatz hori bizitzaren parte saihestezina balitz bezala. Guzti horietan jasotzen ditugu gure bizitzan maitasun erromantikoa indartuko duten mitoak: salbatu eta zoriontsu egingo gaituen printze urdinarena, babestuko gaituen gizonezkoarena, egunerokotasun gogorraren ostean gure deskantsua izango den emakumezko xamurrarena, bizitza osorako laranja erdiarena, oztopo guztiei aurre egin eta gaindiezina den amodioarena, maitasunagatik sufritzeak merezi duenaren ustea, galdutako gizonezkoa birbideratuko duen maitasunarena, pertsonak alda ditzakegula...

Ideologia guzti honek bikotea izatearen behar faltsua sortu, eta izugarriko garrantzia ematen dio gure bizitzan. Gure jendaratean, bizitzako helburua baino patu bihurtu da bikotea izatea (bikotea lortu esan ohi dugu). Bikoterik ez izatea porrot gisa ulertzen da, eta bakardadearen sinonimo. Nori ez diote esan gabonetako familia afarian ea bikotea (heterosexual, noski) noiz ekarriko duen, arrosa pasatuko zaigula entzun behar izatea... Bikote gabe ere gutaz arduratzen den jendez inguratuta ez bageunde bezala, edo bikotea izanda bakardadea sentitzea posible ez balitz bezala.

Baina pentsaera honek lan produktibo eta erreproduktiboan banaketaren logikan zentzua du, azken batean, familian ematen dira zaintza lanak. Bikote harremana ugalketara dago bideratuta, berau familia unitate baten baitan antolatzeko. Hori da sistema kapitalista eta patriarkalak bultzatutako familia ereduak: guraso heterosexualak eta euren seme-alabak. Aiton-amonak gehituta, askoz jota. Familia hori ideologia hegemonikoaren transmisiorako oinarriko instituzioa izango da: bertan irakasten digute generoen bereizketa binomiala, dagokigun generoen arabera zelakoak izan, bikote-kidea izan behar dugula harekin familia osatzeko, gure generoen arabera ze funtzio edo paper bete behar dugun bikotearen eta familiaren baitan... Horrez gain, ikuspuntu ekonomikotik, familia oso kontsumo unitate garrantzitsua da, pertsonen oinarriko beharrezan, zein oinarrikoak ez direnak, asetzeko ekoizpenak bertan kontsumitzen baitira. Beraz, estatuek familiaren instituzioa ezinbestekoa du hezkuntzaren bidez sistemaren arau sinbolikoen transmisioa egiteko, arau horien betetzea bermatzeko kontrol sozialerako trena izan daitezen, ekonomia antolatzeko, lan indarraren ondorioz ondarea pilatzeko, zaintza eta etxeko lanek suposatuko lioketen gastu soziala emakumeengan uzteko, etab. Horregatik, nabarmentzekoa da, hasiera batean onartutako bikote eredu bakarra heterosexuala izanik ere, gaur egun bikote homosexualen onarpen faltsu bat egon badagoela, baina betiere monogamia eta familia eredu hau erreproduzitzera bideratua bada.

Ondorioz, **generoen bereizketa oinarri hartuta, sistema kapitalista eta patriarkala zapalkuntzen arteko loturaren bidez sostengatzen da**. Emakumeek dohainik eta euren aisiaren kontura egiten dituzten etxeko eta zaintza lanak, aukera ematen diete gizonezkoek lan horiek beregain ez hartzearen ondorioz

duten denboran bere lan indarra saldu ahal izateko (genero zapalkuntza); era berean, gizonezkoek euren lan indarra saltzen diete (normalean gizonezkoak diren) ekoizpen bideen jabeen familia horiek ekonomikoki sostengatu ahal izateko (klase zapalkuntza); eta produkzio bideen jabeek edo euren interesen babesleek gobernatutako estatuak nazioartean ekonomikoki euren subiranotasuna mantendu ahal izateko, emakumezkoek dohainik burutzen duten lan erreproduktibo horiengan duten arduraren alboratzen dute gastu sozialean murrizketak eginez, eta euren barne produktua egonkortzen dute gizonezkoek zein emakumezkoek burututako lan produktiboen bidez. Horrez gain, beste hainbat zapalkuntza ematen dira: gehiegizko ustiapenaren ondorioz naturarena, lan baldintza prekarioen bidez emakume zein gazteena... eta beste estatu edo nazio batzuen. Azken batean, mundu globalizatu honetan, pertsonen gain, estatuak ere beste estatu batzuk esplotatuak dira, euren lehengaiak, baliabideak, etab. lapurtuz eta sekula ordaindu ezingo dituzten betirako kanpo zorrak ezarriz, horrela potentzia handien menpeko bihurtuz. Dena dela, egun, estatuak ez dituzte beste estatu batzuk soilik zapaltzen, estatuz osaturiko nazioarteko erakundeak ere ezin ditugu ahaztu: Europako Banku Zentrala, Europar Batasuna bera, FMI, Banku Mundiala... Gainera, momentu honetan ondare eta potentzia handienak ez dira estatuak, merkatuan ahalguztidunak bihurtuta, estatuak euren menpera dituzten multinazionalak baizik. **Beraz, emakumeak gizonek zapalduak dira, biak dira estatuak esplotatuak, baina, edonola ere, denak merkatuaren menpekoak.** ■

3. Bizitzeko borroka urratsak 🕒 3 ordu

Feminismotik alternatiba

Egoeraren azterketa hau egin ostean, honi nola aurre egingo diogun landuko dugu, hau da, sistema ustel honen aurrean gure eredu eraikitze gako batzuk bilatuko ditugu. Gure proiektu politikoak eraikiko duen eredu feministak izan behar dela argi dugu. Baina, zelan egiten da hori?

Etengabe eta eremu guztietan zapaltzen gaitu indarrean dagoen pentsamendu eta sistema hegemonikoak. Pertsona burujabeak izatea ukatzen digu, baita herri burujabea izatea ere. Mugimendu feministek urte luzez oso modu desberdinetan garatu dute euren teoria eta praktika. Antolatze hamaika modu izan dituzte, eta bere "feminismo" hitzaren esanahiak adiera ugari ditu. Historian zehar ezinbestekoak izan diren urratsak eman dira, eta garaipenak lortu ahala mundua aldatuz joan, eta era berean, patriarkatuak errealitate berri horiei birmoldatzeko trikimailu berriak asmatu ditu. Egoera berrietara egokitzen da, eredu berriak xurgatuz eta bere eginez. Baina ernai gaude.

Guri dagokigu orain, gaur egungo Euskal Herriko gazteoi, errealitate hau ongi aztertu, eta dugun botereaz jabetuta, urrats irmoak ematea. Horretarako tresna dugu feminismoa.

Praktika feministak zentzu eta arlo guztietan lantzeko, eraiki nahi dugun ereduak marrazten saiatuko gara, kontraesanak azaleratuz eta horiek gainditzeko bide berriak urratuz. Gure egunerokotasunean kezka hauek gainditu eta horretarako eremu kolektibo zein indibidualean (biak eremu politikoak direla ulertuta) aukera eta baldintza berriak eragiteko tresnak sortuko ditugu.

Gure baitan dagoen iraultza egiteko tresnak hartu eta bizi eredu berri eta aske bat eraikitze urratsak ematera goaz.

Bloke honetan landuko ditugun dinamikak **helburu** hauei begira kokatzen dira:

- Feminismoa iraultzarako tresna integral gisa kokatzea.
- Proiektu politikoaren baitan kokatzeko, argudiatzeko tresnak ematea.
- Zeharkakotasuna, eremu guztietatik ikuspegi feministak eraikitze bidea marraztea.
- Feminismoaren praktika barneratzeko abiapuntu bat eskaintzea.
- Militantzian eta egunerokoa, bizi eredu berri horren isla praktikan jartzea.

Ariketak:

18. Zaku**a** bete hitz. (20 min)

Banan bana zaku batetik hitzak ateratzen joango gara: praktika feministaren balore eta ezaugarriak identifikatuko ditugu. Zeintzuk bai eta zeintzuk ez dira praktika feminista bat garatzeko balioak, ezaugarriak?

Hitzak: entzuketa, prozesua, ahalduntzea, efektibitatea, azkartasuna, emaitza, enpatia, kolektibotasuna, tinkotasuna, burugogorkeria, arrazionaltasuna, pertsonala eta politikoa banatzea, harropuzkeria, pazientzia, iniziatiba, umiltasuna, disponibilitatea, erreferentzialtasuna, zalantzak adieraztea...

19. "Zapalduaren antzerkia". (30 min)

Zapalkuntza egoera bat hartuko dugu eta egoera horri praktika feministaren bidez nola buelta eman antzeztuko dugu. Egoerak:

Txosnagune batean koadrilarekin pote bat hartzen zaudela, ipurdia ukitzen diote koadrilako neska bati.

Asanblada batean gaude, eta eztabaida oihuka ematen ari da. Taldekide bat (neska zein mutila) parte hartu nahirik dabil, baina bera ez dago oihuka.

Lan elkarrizketa baten elkarrizketatzailea eta neska bat eta mutil bat daude, eta galdera desberdinak egiten dizkiete. Neskari: ea haurdun geratuko den, ea familiako norbait bere ardurapean duen. Mutilari: esperientzia lanean, burututako ikasketak...

20. Alternatiba. (30 min)

Bizitza/kapitala kontzeptuak bi zutabeko taulan kokaturik, bikoteka eremu bat hautatu eta ezaugarriak zerrendatu.

Nolakoak lirateke eremu hauek bizitza (pertsonek beharizanak, bizitza ona) erdigunean kokaturik? Nolakoa da egun, kapitala ardatz duelarik? geratuko den, ea familiako norbait bere ardurapean duen. Mutilari: esperientzia lanean, burututako ikasketak...

Eremuak: hezkuntza, sexualitatea, familia, lana, aisialdia, militantzia, osasuna, amalurra, identitateak, komunikazioa, kultura, kontsumoa...

21. Bideoa. Eztabaida eta kaleratzeko proposamenak adostu. (30 min)

Alternatiba, praktika feministatik iraultza.

22. Ondorioak eta balorazioa . (15 min)

Nik: ondorioak bi planotan:
sentipenei begirako ondorioak.
markatutako helburu politikoei begirakoak.

Taldean: emandako urratsak nola eman ditugu? Noraino heldu gara? Lan estiloa, parte-hartzea, konpromisoa, metodologia, edukia, harremanak, giroa, eragina, ekarpena...

Zein mugarri ezarri behar dugu aurrera begira? Nondik jo beharko genuke?
Zein da gure hurrengo helburua?

23. Kaleko ekintza.

Ikasturte osoan zehar sistema patriarkal eta feministaren inguruan hausnartzen egon gara, espazio askeago bat sortu dugu, baina kalean sistemak bere horretan dirau.

Zer egin dezakegu eduki guzti hauek kaleratzeko? Gure herri/auzoan bereziki patriarkala den gune edo ohituraren bat dago? Zertan eragin dezakegu?

3.

**BIZITZEKO
BORROKA
URRATSAK:**

FEMINISMOTIK
ALTERNATIBA

Zein alternatiba?

Sistema kapitalista eta patriarkalean, ekonomiaren erdigunean kapitalaren metaketa dago. Dena kapitalaren metaketara bideratuta dago: gizartearen zein norbanakoen bizitzako elementu oro merkatura bideratu daiteke (osasuna, hezkuntza, aisia, sexualitatea, gorputzak...). Sistemak zapalkuntzaren bitartez pertsonen lan indarretik zein hauen erreprodukzioetik irabaziak ateratzen ditu, hau da, plusbalioa ateratzen du. **Mugimendu feministak, aldiz, ekonomia pertsonen beharrianetara bideratu eta pertsonen bizi baldintzak bermatu beharko lituzkeela defendatu izan du.** Zentzu honetan, pertsona guztiak elkarren menpekoak garela ulertu behar dugu, elkarren laguntza, zaintza, begirunea... behar ditugu. Hortaz, ez dago pertsona guztiz autonomorik, autonomia gradu ezberdinak baizik, hau da: jaiotze berriak garenean guztiz menpekoak izango gara; koxkortzen goazen heinean, autonomia gehiago irabaziko dugu (oinez ibiltzen, hitz egiten... ikasiko dugu); helduak garenean autonomia maila handiagoa lortuko dugu (hala ere, edozein momentutan gaixo jarri gaitzeko eta dependentzia maila altuagoa izan); eta, azkenik, nagusiak garenean, aurretiaz izandako autonomia galduz joango gara. Beraz, elkarren arteko dependentzia gure bizitza zikloaren ezinbesteko ezaugarria da. Hori dela eta, bizitza osoan zehar zainduak izatearen beharra dugu biziraun ahal izateko. Batzuetan zaintza intentsiboagoa beharko dugun arren, momentu oro afektibitatearen eta zaintzaren beharra dugu.

Hori guztia kontutan hartuta, feminismitik berebiziko hausnarketa planteatzen da: nola zaintzen ditugu pertsonak? Nola zaintzen dugu jendartea bera (era kolektiboan zein gure ekosistemarena)? Zein da gure elkarbizitzaren helburua? Zein da jendartea beraren helburua? **Sistema kapitalista eta patriarkarren kontraesanik handiena bizitza eta kapitalaren artean dago:** sistema kapitalistan jendartearen zein ekonomiaren helburua kapitala metatzea den heinean, bizitzaren zaintza modu duinean bermatzea ezinezkoa da. Beraz, beste eredu bat nahi badugu, **sistemaren erdigunean bizitza kokatzea, eta ez kapitala, ezinbesteko baldintza izango da.** Baldintza honek zaintzarekiko ardua sozial eta kolektiboa suposatzen du, hau da, ingurugiroarekiko, gizartearekiko eta pertsonarekiko zaintza gure ekinbide politikoaren erdigunean jartzea. Horretarako, zaintza lanaren karga banatu beharra dago, izan ere, orain arte emakumeen gain geratu da. Haatik, 8 orduko lanaldi batek zaintza lanetan ardurarik ez hartzea suposatzen du (ez baitago denbora materialik zaintza lanak betetzeko). Hori dela eta, bizitza erdigunean jartzeak enpleguaren orduen banaketa galdatzen du, lanpostuen orduak murriztuz eta pertsona guztien artean banatuz, baita zaintza lanaren banaketa ere, denok eremu honetan ardura hartuz. **Beraz, lanaren (produktibo eta erreproduktibo) zein denboraren banaketa aldaketa sozialerako ezinbesteko pausua da.** Baina horretarako, gure bizi ereduak eta pribilegioak zalantzan jarri behar ditugu, hauen inguruko hausnarketa martxan jarritz: zein da nire bizi proiektua? 8 orduko enplegu bat nahi dut? Jabetza pribatua oinarritutako etxebizitza bat nahi dut? Familia nuklear bat osatu nahi dut (heterosexuala, itxia eta hierarkikoa)? Eta familia honetan nork beteko ditu lan erreproduktiboak? Zein baldintzatan bizi nahi dut?...

Ondorioz, **feminismoak jendarte antolaketa berri bat suposatzen du, alternatiba integral eta erradikal bat osatuz**, arazoaren muinetara helduko dena. **Zaintza lanak erdigunean jartzeak erreprodukzioa jendarte-antolaketaren erdigunean jartzea esan nahi du**, merkatua eta produkzioa betidanik izan duten tokitik baztertuz. Horretarako, beste balio batzuk praktikan jartzea ezinbestekoa dugu, bizi eredu berriak sortuz. Iraultzarako errezetarik ez dago, ezta barita magikorik ere, baina irudimena eta borrokarako grina ditugun heinean, egunero iraultza egiteko baldintzak izango ditugu.

Nola burutu?

Oro har, herri mugimenduan ezagutu dugun praktika politikoak, nahiz eta berebiziko garrantzia eta potentzialtasuna izan, ikuspegi feministatik hutsuneak izan ditu. Azken batean, **guk ere sistema horren baloreak eta dinamikak birproduzitzen ditugu, sistemaren barruan gauden heinean**. Zentzu honetan, gure eguneroko jardunean genero rola eta botere harremanak birproduzitzen ditugula kontutan izan behar dugu. Emakume zein gizonen sozializazioa ezberdina den heinean, gure jarrerak, lehentasunak... ez dira berdinak eta horrek militantzian badu isla: **izebergaren metafora militantziaren esparrura txertatu daiteke**, bertan, baloratuak eta ikusgarriak (“prestigidunak”) diren lan batzuk eta ezkutukoak eta baloratu gabekoak diren beste batzuk daudelako. Askotan, izebergaren eremu ikusgarria gizonak burutzen dute (ardura publikoak, prentsurrekoak eman, ekitaldietan protagonismoa,..) eta eremu ezkutatuan geratzen diren lanak emakumeek burutzen dituzte (ekitaldien prestaketak, irakurketak, sinadura bilketak, sukaldeko lanak...).

Gainera, **publiko/pribatu dikotomia erreproduzitzen dugu: gure bizitza pertsonala eta militantziaren artean marra edo binomio bat ezarriz**. Hau da, gure eremu pertsonala, afektiboa, lagunak, familia... alde batetik, eta beste alde batetik militantzia, gure jardun publikoa... Horregatik, gure egoera pertsonalen eta hauetan izan ditzakegun arazoengatik ez dugu hitz egiten, euren izaera politikoa ez dugu aitortzen, eremu afektiboa gure jardun politikotik baztertuz, gutxietsiz. Gure bizitzari balio politikoa kentzen diogu, politika militantzia eremu hertsian egiten dugula ulertuz, eta ez gure egunerokotasunean egiten ditugun hautuetan. Baina gure bizitza pribatuak ere politika da, azken batean, gure artean harremantzeko era, eraikitzen ditugun familia ereduak, aisialdi aukerak, kontsumitzen duguna... politika da. Gure bizitza pribatua ere politika da, eta beraz, gure bizitza ere militantzia eremu bat da. Horrela, esaterako, zaintza lanak eremu pribatuan konpondu behar diren zerbait gisa ulertzen ditugu, honen gainean dugun erantzukizun sozial zein kolektiboa ukatuz, baina geure buruan dugun banaketa horrekin bukatu behar dugu.

Gehienetan, **burutzen ditugun ekintzak baloratzerako orduan**, soilik **ZENBAT** eremuan kokatzen gara (zenbat pertsonak parte hartu duten, zenbat atxikimendu lortu ditugun, zenbat pankarta egin ditugun..) eta ez dugu hainbeste hausnartzen ekintza horiek aurrera eramateko moduz edo emaitza horiek **NOLA** lortu ditugun, nolakoa izan den prozesua bera (ea lan banaketa egoki bat egon den,

horizontalki lan egin dugun, genero rola birproduzitu ditugun edo ez, guztion parte hartzea bermatu dugun edo ez...). Horrez gain, balorazioetan emaitza soilik hartzen dugu kontuan, eta sentimenduak ez ditugu kontuan hartzen. Gure ekimenean garapenean bakarrik sentitu bagara, gutxietsiak, alboratuak, lan guztia gudan geratu dela sentitu badugu, edo norbaiten jokabidea gustatu ez bazaigu... ez diogu elkarri esaten, eta aurrerantzean, egoerak errepikatu egiten dira, saihesteko bitartekorik jarri ez dugulako. Batzuetan, haserretuz gero soilik azaleratzen dira horrelako egoerak, eta amorratuta, oihuka, eta errespetu faltan artean izaten da. Bizitza jarri nahi badugu sistemaren erdigunean, gu hasi behar gara berau produktibitatearen aurretik kokatzen.

Lan merkatuaren eremuan lan egiteko eredu konkretu bat dago eta, herri mugimenduetan, oro har, **gure egunerokotasuneko jardun politikoan** askotan logika berdinarekin ekiten dugu: **presak, efektibitatea, emaitzak berehala ikusi nahi izatea**... Horrek jardun desorekatu eta bidegabe batera bultzatzen gaitu, zeinetan botere harremanak eta lan banaketa ezegokiak protagonista diren, "militante txanpiñoiak" edo "lanaldi osoko militanteak" sortuz, zaintzan inolako ardurarik ez dutenak. Kosta ala kosta eraginkorrak izateak lana guztion artean banatu beharrean pertsona gutxi batzuen artean banatzea dakar, hau da: lan karga guztia hamabosten artean banatu beharrean, hiruren artean banatzea errazagoa suertatzen zaigu. Honek, dedikazio eta denbora gehiago suposatzen du, disponibilitate osoa ez dutenen parte hartzea oztopatuz, esaterako, zaintza lan intentsiboak dituztenak (ume txikien zaintza, nagusien edo gaixoen zaintza...). Horrela, militantzia eremuetan genero zapalkuntza birproduzitzen dugu. Bestela, zergatik 30 urte aldera heltzerakoan, desagertzen dira emakumeak militantzia esparruetatik? Militantzia ez dugulako pertsonen beharretara egokitzen.

Eraginkortasunaren izenean, lanak pertsona gutxiren artean banatzeaz gain, ez ditugu bitarteko nahikoa jartzen denok parte hartu ahal izateko. 24 orduko militantzia gaizki ulertu izan da askotan, eta mugimenduaren mesedetara orduro egotea eskatu izan diogu elkarri, gure bizitzako eremu guztietan gure militantziak izan beharko lituzkeen balore eta printzipioak aplikatu beharrean. Gainera, oso ohikoa izan da erabakiak bileretatik kanpo hartzea, edo hartutako erabakiak bilera ostean aldatzea gutxi batzuen artean. Horren oso ohiko adibidea izan da batzuek bilera osteko potean erabakiak hartu edo aldatzea. Horrek militante batzuk erabaki horietatik baztertzea, edo dagoeneko eman duten euren iritzia gutxiestea dakar, eta, normalean, zaintza eta etxeko lanen ardura dutenek bilera ostean alde egin behar izaten dutenez, emakume militanteak izan ohi dira alboratuak.

Beste alde batetik, jarduteko modu honek **inertziak eta monotoniak** sorrarazten ditu, irudimena zein sormena oztopatuz, baita lanaren zein rolen banaketa ere: jendeak rol batzuk bere egiten ditu, horren arabera gaitasun batzuk garatzen ditu eta ez da hortik ateratzen, ikasketa kolektiboak ekidituz. Modu honetan, taldearen funtzionamendurako "ezinbestekoak" diren militanteak sortzen ditugu eta, zer gertatzen da ez daudenean? Taldean pertsona batzuekiko menpekotasuna sortzen du horrek, baina era berean, "ezinbesteko" militante

arabera
en dutenea
te.

pinismo" l

BIZITZKO BORROKA

PATRIARKATUARI

SUA!

horiei taldearentzako beti prest eta gogotsu egoteko beharra ezartzen die. Ez die euren bizitza pertsonalean militantzian eragingo duen gora beherarik izatea ahalbidetzen. Era berean, botere harremanak sortzen ditu, pertsona batzuk besteak baino erreferentzialagoak izango direlako, eta euren hitzak gehiago balioko duelako eztabaidetan. **Militante baten jarduna zeren arabera baloratzen dugu?** Disponibilitate osoa izatea, publikoan hitz egiten jakitea, adorea, amorrua adierazten jakitea, beldurrak eta zalantzak ez adieraztea... al dira gehien baloratzen ditugunak? **Gure eredu militantea balio maskulinoen arabera al da?** Gure artean ongizatea bilatzea, laguntasuna, giro ona, zaintza... baloratzen ditugu?

Egoera hauek oso eragile desberdinetan ematen dira, berdin du egitura duten erakundeak, asanbladak, koordinadora edota plataformak diren: joerak berdinak dira, patriarkatuaren eragina berdin jaso dugulako. Militanteak gure lan politikoan robotizatu egiten gara, gure sentimenduak alboratzen ditugu eraginkortasunaren izenean, pertsona ez bagina bezala. Kapitalismoak langileriarekin egiten duen bezala. Eta militanteak pertsonak gara, are gehiago, pertsonak garelako gara militanteak. Militantzia gure nortasunaren garapenean izugarritzko garrantzia duen eremua da, eta garapen hori balore sozialista eta feministetan oinarritua eman behar da, ez gainditu nahi dugun sistema kapitalista eta patriarkarraren baloreak erreproduzitzen.

Esparru politikoa orokorrean genero ikuspegi batetik begiratuta, oztopoz beterik dago. Gainditzeko oztoporik zailenetakoa, **ekinbide politikoan hain sustraituta dagoen kultura maskulinoa da**, hain zuzen ere. Ardura guneetan areagotzen da, ardura guneak gizonen nagusitasunaren parte direlako, zeinetan kultura maskulinoa indarrean dagoen (politikaren jardunean disponibilitate osoa, lehiakortasuna, karisma...). Esparru hauetan, gizonak gizonekin biltzen dira, eta horregatik, zientzia Politikoaren esparruan "boy's clubs" edota "gentlemen's clubs" izenekin ezagunak dira.

Horregatik guztiagatik, emakumeen presentzia politikaren eremuan oso garrantzitsua da, ez soilik "kanpora" begira, baizik eta bertan erabakiak hartu eta bere ahotsa entzuteko, hau da, emakumeen lehentasunak politikak diseinatzeko prozesuan presente egoteko. Hori dela eta, **emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu politikoan justizia afera bat da, biztanleriaren erdia osatzen duten heinean, erabaki guneen erdia okupatzeko eskubidea dutelako**. Beraz, politika eta erakunde politikoak maskulinoak direla diogunean, gizonen gehiegizko presentziaz ari gara, baita hauek ezartzen dituzten arauak eta erabakiez ere (gizonen interesak jarraitzen dituztenak). Honek ez du esan nahi emakumeen bazterketa erabaki zuzen baten ondorioa denik, baizik eta politikako erabaki gune hauetan indarrean dagoen kulturak eta praktikak jokaera maskulinoak txalotu eta femeninoak gutxiesten dituela. Zentzu honetan, askotan, **emakumeek, parte hartze politikoan aritzeko eta euren jardunean baloratuak izateko, balore maskulinoak erreproduzitu behar dituzte**, botere harremanak sortuz. Hala eta guztiz ere, ezin dugu ahaztu egoera pribilegiatu hau salbuespen bat dela. Izan ere, etxeetan zein familietan ematen den lan banaketa sexualak

barrera psikologiko zein praktikoak sortzen ditu emakume zein gizonentzat, emakumeen presentzia eremu publikoan oztopatuz eta gizonena bultzatuz. Beraz, emakumeak txikitatik eremu pribatura bideratuak diren heinean balore horien arabera sozializatuak dira eta horregatik, **politikaren eremuan parte hartzen dutenean eta militanteak bilakatzen direnean, euren rolak hausten dituzte.**

“Feminismo” hitzak berdintasuna esan nahi du? Edo parekidetasuna?

Estatu feminista batera bidean, parekidetasunerako urratsa eman behar dugu lehenik. Parekidetasuna genero bereizkeriarik gabe eskubide berdinak materialki, ez soilik legearen aurrean, izango ditugun egoera da. Parekoak garen egoera, maila berdinean gauden egoera, egiturazko zapalkuntzaren zantzurik eta botere harremanik gabe. Hau da, eskubide zibil eta politiko berdinak (esaterako, pentsioetan), lan baldintza berdinak (soldata berdinak, kristalezko sabairik eza, lanean inongo jazarpen sexual eza, lantokietan seme-alabentzako zaintza zerbitzuak egotea...), hiri/herri eredia eta azpiegitura publikoak biztanleria osoaren beharren arabera eraikitzea (gune ilunik ez egotea, batez ere emakumeek mugitzen dituzten pertsonen gurgil-aulkientzako erraztasunak)... Hori dena lortzeko tresna da feminismoa.

Ikuspegi feminista batetik, betaurreko moreak jarrita, patriarkatuaren aztarnak identifikatu, eta praktika feministaren bidez, eremu guztietatik hasiko dugu eraldaketa. Gure arteko harremanak eraldatuz jendarte eraldatzeari ekingo diogu. Parekidetasuna posible egiteko, praktika feministak bultzatu eta martxan jarriko ditugu, eta hori da Euskal Estatu Sozialista eta Feminista ezaugarrituko duena: ez da emakumezko zein gizonezkoen berdintasuna aldarrikatzera mugatuko, politika feministen bitartez, generoa aintzat hartu gabe, denon beharrak aseko dituen antolaketa sozialista bat izango da. Horregatik diogu parekidetasuna dela lortu behar duguna, eta ez berdintasuna: pertsona guztiak ez gara berdinak, egoera desberdinetan bizi gara, eta horregatik beharizan desberdinak ditugu. Egoera desberdinetan gaudenak berdin tratatzeak ez gaitu pareko egiten, bereizkeriak eta desberdintasun sozialak sortzen ditu, batzuen onuran eta besteen kaltetan. Denok pareko izateko, egoera desberdinak desberdin tratatu behar ditugu.

Hamaika identitate daude, eta feminismoak denak aintzat hartu eta denontzako jardutea du helburu. Horregatik nahi dugu estatu sozialista eta feminista bat: egiturazko zapalkuntzarik gabeko jendarte bat nahiko dugulako, zeinetan pertsonak parekoak izango garen. Beraz, balore sozialista eta feministetan oinarritutako praktika da jendarte aske eta parekiderako tresna. Eraldaketa gugandik hasten da!

Zeintzuk dira praktika politiko feminista garatzeko haziak?

Edozein aldaketa sozial, norbanakoengan ematen diren aldaketa txikietatik hasten da. Eraldaketa hauek era isolatuan eman beharrean, logika eta helburu kolektiboak dituzten heinean, aldaketa sozialerako lehendabiziko urratsak dira. Hori dela eta, **iraultza norberarengandik hasten da**, gure egunerokotasunean aldaketak txertatuz eta esparru guztietan borrokatuz (kalean, etxean, lagunekin, parrandan, klasean, lanpostuetan,...). Garrantzitsua da **eremu pertsonala gure jardun politikoan txertatzea**, militantzian ere zapalkuntzak gertatzen direlako, eta aldi berean, gure ongizaterako ezinbesteko eremua delako. Mugimendu feministak hasiera hasieratik aldarrikatzen zuen modura: pertsonala politikoa da! Hortaz, eremu politikoa eta bizitza pertsonalaren arteko mugak zalantzan jarriko ditugu. Izan ere, bizitza pribatua dugun egoerak eremu publikoan dugun jardunean eragina du. Zentzu honetan, emakumeen familia eta etxeko eremuko gehiegizko presentziak, eremu publikoan euren parte hartzea oztopatzen du; eta alderantziz, eremu pribatuko gizonen presentzia eskasak, euren eremu publikoko parte hartzea areagotzen du. Zentzu honetan, gure alternatiba parte hartzean oinarritzen bada, ezinbestekoa da eremu publikoan emakumeen parte hartzea sustatzea, eta horretarako, eremu pribatua aldaketa garrantzitsuak eman behar dira, bertako lan kargak eta denborak banatuz.

Horretaz gain, jardun politikoa balio maskulinoen arabera dela azpimarratu dugu, horregatik, balio femeninoak baloratu eta praktikan jarriko ditugu, gure arteko zaintza eta begirunea bermatuz. Zentzu honetan, jarrera umilak, enpatia eta hurbiltasuna ezinbestekoak izango dira gure eguneroko jardunean. Era berean, eremu erreproduktiboak gure jendarte ereduaren erdigunean kokatzen dugun heinean, gure buruen inguruan hausnartu beharko dugu, egunerokotasunean ditugun pribilegioak ekidituz: nire etxean, norik betetzen ditu lan erreproduktiboak? Zein ardura daukat nik horretan? Lan hauek baloratzen ditut? Militantzian "ehuneko ehunean" banago, norik bermatzen ditu nire eguneroko beharrianak? Gure militantzia esparruan etxeko eta zaintza lanak eta lan politikoaren arteko uztarketa errazten dugu?

Zentzu honetan, **bizitza eta militantzia uztartzeko beharra dugu**, gure egoera pertsonala ez delako berdina izango bizitza osoan zehar eta gure militantziak horren arabera gora-beherak izango dituelako (gaixorik jarriko gara, animikoki gogo gutxiagorekin egongo gara, zaintza lan intentsiboak izango ditugu...). Horregatik, hauek aurreikusi eta irtenbide kolektiboak asmatzen saiatu behar gara (esaterako, zaintza lanak banatzeko tresnak jarritz, edota arazo pertsonal konkretuek mintzatzeko aukera eskainiz). Gure bizitzako esparru guztiak elkarloturik daude eta guztiak garrantzitsuak dira, baina, zeren arabera lehenesten ditugu batzuk eta beste batzuk ez? Sistemaren baloreak birproduzitzen ditugu, publikoa lehenetsiz eta pribatua ezkutatu. Askotan, **gure eremu pertsonalak dimentsio soziala eta politikoa dauka, eta horrela izanik, irtenbide kolektiboak behar du**. Gure militantzian arlo pertsonala kontutan hartu eta jorratzearen beharra daukagu, gure arteko komunikazioa erraztuz. Arlo pribatua jorratzeak gure ahulguneak mahai gaineratzea suposatzen dezake,

IZAN
Zaitte
zu



baina horiei aurre eginez indargune asko irabazi ditzakegu. **Balio efektiboan gaintik** (emaitzak berehala eta edozein modutan) **balio afektiboak jorratzea** garrantzitsua da, gure eguneroko jarduna “erosoa” eta “segurua” bihurtuz: militanzia luzaroan mantentzeko, erritmoak mantsoak izan behar dira, pertsona bakoitzaren beharizanak eta militantziarenak uztartuz. Erritmo frenetikoek pertsonen nekea eta etsipena sortarazten dute gehienetan. Horretarako, komunikazioa, enpatia eta elkar entzutea jorratzea ezinbestekoa da, finean, **gure elkarren arteko zaintza** bermatzea ezinbestekoa da.

Gure jardunaren gaineko hausnarketa iraunkorra burutzea garrantzitsua da, autokritika bultzatuz eta gure akatsetatik ikasiz. Emaitzak ZENBAT izatearen arabera neurtu beharrean NOLA burutu ditugun arabera baloratuz. Emaitzak kanpora zein barrura begiratzuz baloratzea ezinbestekoa da, **PROZESU OSOARI garrantzia emanaz**, ez soilik amaierari (eremu publikoan zein pribatuan gertatzen denari erreparatuz). Izan ere, askotan gure lehentasunak “makropolitikaren” eremuan kokatzen ditugu, hau da, teorizazio handien eremuan (independentzia-sozialismoa-feminismoa) eta zoritxarrez, lelo hutsetan geratzen dira, praktikaren eremua ahaztuz. Alternatibari dagokionez, hitzetatik ekintzetara pasatzerako orduan zailtasunak ditugu, horregatik, iraultza bera eta gure alternatibak egunerokotasuneko ekintza txikietatik iritsiko direla ulertu behar dugu. **Egunerokotasuneko iraultza** izango da gurea eta horregatik, gure eguneroko lanari (bai bileretan zein etxean) eta prozesu osoari garrantzia eman behar diogu, bizitza eredu berriak sortuz.

Egunerokotasuneko iraultza honetan, pertsona guztien ekintza txikiak ezinbestekoak dira. Hori dela eta, **pertsona guztien parte hartzea bermatzeko, lan banaketa egoki bat burutzea ezinbestekoa da**. Denok ez dugu disponibilitate berdina, beraz, guztion aukeretara moldatzen saiatu behar gara. Bakoitzak bere txikitasantatik egiten duenak kolektiboarentzat asko suposatzen du, beraz, guztion presentzia eta parte hartzea bermatzeko tresnak lantzea garrantzitsua da. Horretarako, bileren ordutegiak malguak izatea garrantzitsua da (ze patroien arabera jartzen dira? zaintza lan intentsiboak dituzten ordutegiak kontutan hartzen dira edo lan merkatuarenak?), baita bestelako parte hartzeak barnebiltzea ere (agian bilerara ezin naiteke agertu, baina zerbaiten inguruan irakurketa bat egin dezaket edota kartel baten zirriborro bat, etab.). Modu berean, emakume eta gizonen arteko presentzia orekatua bermatzeko ardura suposatzen duten guneetan kuotak ezartzea komenigarria da, nahiz eta egora aldatzeko behin behineko neurri bat baino ez izan.

Beraz, lana eta arduren banaketa berebizikoak dira. Horretarako, **ikasketa kolektiboak martxan jartzea** praktika egokia izan daiteke: gure gaitasunak edo trebeziak berezkoak ez direlako, ikasiak baizik. Horregatik, guztiok gaitasun ezberdinak garatzeko eta horietan trebatzeko aukera izan beharko genuke generoen arteko lan bereizketa ekiditeko, esaterako: gizonak arlo afektiboa jorratuz eta emakumeak ahalduz trebatuz. ■

URRATSEZ URRATS... MOREZ BUSTITZERA!

Urratsez urrats egiten da bidea. Eta lehenengo urratsak izaten dira zailenak: atzera bueltarik ez duen bidea hartzea, bidea norantz egin erabakitzea, bidearen oinarriak jartzea... Hori dena egin dugu urrats honekin. Izan ere, behin betaurreko moreak jarrita, kentzea ezinezkoa da: gure baitan errotzen den kontzientzia feministak etengabe egiten digu oihu patriarkatuaren zantzuen aurrean. Eta erantzutera behartzen gaitu, besteen begiak irekiaraztera, kontzientzia gehiago astindu eta beste eredu batzuk sortzera. Urrats honek, aurrerantzean emango ditugun guztiak baldintzatuko ditu. Oinak non genituen aztertuta, pausatuko ditugun helmuga zein den zirriborratu dugu, eta orain badakigu zein norabidetan mugituko ditugun.

Ikasturte honetan emango dugun urrats honek denetariko sentimendu eta momentuak ekarri(ko) dizkigu: ilusioa eta grina hasieran, kuriositatea askorentzat; izugarrizko agobioak dinamikak burutzeko bilgunearen eguna jartzeko datarik ez dugulako; dinamika desberdinekin egindako barreak; guk erreproduzitzen ditugun jarreraren inguruan hitz egiterakoan sortutako konfidentzia giroa; hainbeste ariketaren osteko nekea; prozesua aurrera joan ahala jokaera eta eraso sexista desberdinak identifikatzen goazela ohartzea; lan guzti honek zerbaitetarako balioko duen zalantzak, gure arteko gauzen jatorri eta zergatiaren inguruko ezadostasunak... Esan bezala, lehenengo urratsak dira beti zailenak.

Baina lehenengo urrats hauen emaitzak eta ondorioak ikusten goazen heinean, urrats gehiago emateko indarberritzen gara. Eta hala gertatuko da urrats honekin ere. Sistema osoa kapitalismoaren beharrak asetzeko zapalkuntzen loturaz nola baliatzen den eta patriarkatuak guzti honetan duen papera aztertuta, guri dagokigu gugandik hasita bizi eredu hori iraultzen hastea. Guri norbanako moduan, baina baita guri gazte antolakunde moduan ere. Horretarako gakoak aztertu ditugu alternatiba feministari dagokion puntuan. Militantzia eredu feminista, horren araberako funtzionamendu eta antolaketa eredu... Gako guzti horiek gure egunerokotasunera ekarriz eman ahal izango dugu hurrengo urratsa. Azken batean, prozesu hau ez da hausnarketa eta kontzientziario hutserako, ahalduntze eta praktika baten bidez garatuko baitugu. Eta hausnarketa hauei esker, urrats hori ere emango dugu, oinarri ideologiko sendotu batzuek lagunduta. Askotan ohartu gabe ere egingo dugu, behinola kurtso hasieran jarri behar izan genituen betaurreko more haiek, gure begi bilakatu direlako.

Eta eurekin begiratuko dugu hurrengo urratsean oina non pausatu. Izan ere, oinarri batzuk landu ditugu aurrean: sexu-genero sistema, kapitalismoa eta patriarkatuaren arteko ezinbesteko lotura eta horri aurre egiteko praktika feministaren zati txiki bat.

Baina bide asko dugu aurretik, eta urrats asko emateko ere bai. Praktika feminista bat garatuko du Ernaik, bai. Baina hamaika feminismo daude munduan, feminismoa ulertu eta eraikitzeke hamaika modu desberdin. Zein da gurea? Ibilbide luzea egin du feminismoak mundua, baita Euskal Herrian ere. Zer ekarpen egin nahi diogu guk ibilbide horri? Balore feministetan oinarrituriko sozialismoa izango da gurea, baina zer esan nahi dugu hori esaterakoan? Antolakunde feminista gara. Zelan landuko dugu feminismoa? Zelan egingo dugu gure funtzionamendua feminista izan dadin?

Gauza asko ditugu oraindik hausnartu, erabaki eta praktikan jartzeko. Urrats asko emateko. Beraz, jar dezagun praktikan gure egunerokotasunean ikasturte honetan zehar landu duguna, emaitzak ikustean indarberritu, eta hurrengo urratsa eman dezagun!!

Oinak morez margotuta egingo dugu bidea!

Euskal Herria, 2013ko udazkena

Ahalduntzea. Gure buruen eta taldearen kontzientzia hartzeko prozesua da, ondoren gure posizio sozial, politiko eta ekonomikoa indartzeko. Kontzientziazio hori ezinbestekoa da erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartze handiagoa izateko, antolatzeko eta boterea eraikitzeko. Izan ere, ahalduntzearen bidez, burujabeak izateko oinarriak jartzen ditugu: autoestimua hobetzea, gaitasunak eskuratu eta garatzea, autogestioa lantzea... Horregatik esan dezakegu ahalduntzea prozesuaz gain, emaitza ere badela.

Androzentrismoa. Gizonezkoei dagozkien berezkitasunak eta ezaugarriak unibertsorearen ardatz eta errealitatea aztertzeko parametro gisa kokatzen ditu. Horrela, gizateria gizonezkoarekin nahasten du, gizonezkoa giza espeziearen esperientzia unibertsal gisa irudikatuz. Emakumezkoak gizonezkoekiko bigarren maila batean utzi eta ezkutatu egiten ditu.

Bizi baldintzak. Egoera historiko zehatz batean talde batek bizi duen egoera. Egoera honen oinarrian baldintza sozioekonomikoak daude eta hauen ondorioz sortzen dira bizitzeko baldintzak. Honek talde jarrera jakin bat dakar. Ondorioz, egoera historiko desberdinetan, emakumezkoek bizi baldintza desberdinak izan dituzte, betiere egiturazko zapalkuntzak baldintzatutakoak. Mugimendu feministaren sorrera eta une historiko desberdinetan izandako aldarrikapen eta praktika desberdinak dira bizi baldintza horien aurreko jarrera.

Bizi eredu askatzaileak. Bizi eredu hegemonikoari muzin egin eta norbanako gisa zein kolektiboki askatasunean oinarritutako jarrera iraunkorra. Hau da, gure bizi-ereduarekiko egunerokotasunean ditugun kontraesanek jabetu eta hauek gainditzen saiatuz bizitzea. Bizi eredu askatzaile horien oinarrian balore feministak egon behar dira.

Burgesia. Jendarte kapitalistako klase dominatzailea. Langileriak ekoiztutako aberastasunaz baliatzen dena botere monopolioa izateko arlo orotan.

Burujabetza. Subjektu batek erabakitzeko ahalmena izatea bere buruarengan; nazio, herri zein norbanakok. Pertsona edo herri burujabeak bere buruari subjektu izaera aitortu eta inguratzen dituen elementuak kontuan izanda, erabakiak hartzen ditu. Norberarengandik hasten den prozesua da. Feminismoari dagokionean, emakumeei burujabetza sistematikoki ukatu zaie euren bizitzaren arlo guztietan historian zehar: etxean, euren gorputzengan, osasunean, hezkuntzan, aisialdian... Subjektu izaera hori ukatzerakoan, erabakiak bere kabuz hartzeko eskubidea ere. Horregatik, emakumezkoak eraldaketa sozialerako ezinbesteko subjektu garen heinean, burujabeak izatea ezinbestekoa da.

De Beauvoir, Simone. 1908an jaio zen Parisen. Bere memoriak idaztera zihoala emakume izateak bere bizitzan zer suposatu zion perspektibatik planteatu zuen, eta horrela idatzi zuen "Bigarren Sexua". Sufragismoaren garaipenaren ostean feminismoa desegituratze eta desagertze fase batean mugilduta zegoela, liburu honekin Simonek emakumearen zapalkuntza landu zuen eskubide zibil eta politikoen ukaziotik harago: munduaren antolaketa androzentrismoa salatu zuen, eta horregatik adierazi zuen emakumea gizona ez zen "beste" zela, lehenengo sexuaren osteko bigarren sexua. Horrez gain, generoak eraikiak zirela adierazi zuen: "emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da". Heteroaria ere landu zuen liburuan. Autoreak berak adierazi zuen Bigarren Sexua idazten hasi zenean ez zuela bere burua feministatzat, baina liburuak feminista egin zuela. Garai hartako emakumeengan izugarritzko harrera izan zuen liburuak, eta feminismoaren

Hirugarren Olatuari hasiera eman zion, borrokarako eremu berri bat zabalduz: eraikuntza kulturalarena.

De Gouges, Olimpia. Frantziako Iraultzan aktiboki parte hartu zuen, eta ekarpen teoriko garrantzitsuak egin zituen. Emakumeen eskubideen defendatzaile sutsua izan zen, eta bere garaiko iritzi publikoa asaldatzen zuten 4.000 folio baino gehiago idatzi zituen idazki iraultzaileetan: antzerki obrak, panfletoak, nobela autobiografikoak, testu filosofikoak... 1789an Asanblada Nazionalak emakumeen eskubideei muzin egin eta "Gizon eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena" aldarrikatu zuenean, "Emakume eta Hiritarraren Eskubideen Adierazpena" idatzi zuen erantzunean. Ondorioz, izugarriko kriminalizazioa jasan zuen, gillotinan erail zuten arte.

Desioaren orientazioa. Desioa norengana zuzentzen den (mutilengana, neskenengana, biengana...).

Eliza. Jesukristoren doktrinari jarraitzen dion instituzio zapaltzailea. Historikoki herrialde ezberdinetan kristautasuna inposatu eta inperioaren lurraldeak ustiatzeko baliatu izan da. Egun, jendartearen morak eta etika kontserbadorearen bultzatzaile da. Abortua, antisorgailuak, homosexualitatea, etab. ez ditu onartzen, esaterako.

Emantzipazioa. Norbanako edo kolektibo bati autoritate edo potestate batekiko autonomia eskuratzeko ekintzari egiten dio erreferentzia.

Eraldaketa. Bere identitatea mantentzen jarraitzen duen arren ematen den aldaketa edo moldaketarako ekintza edo prozesuari deitzen zaio.

Eraldaketa soziala. Egitura sozialaren forma edo baloreen alterazioa. Sistema

sozial, ekonomiko eta politiko berri baten ezarpenak izaten duen aurrekaria.

Erreformismoa. Sistema, proiektu edo jendarte hobetu asmoz aldaketa gradualak egiten dituen mugimendu sozial eta politiko. Aldaketa hauek arlo zehatz batzuen inguruan izaten dira gehienetan eta honek ezberdintzen du mugimendu iraultzaileetatik. Azken hauek errotik eta modu integralean aurkitzen baitituzte aldaketak. Mugimendu feministan adibide bat jartzearen, hasierako feminismo burgesak emakumeentzako eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzerakoan (sufragismoa eta bozka eskubidea da esanguratsuen), emakumezkoen eskubide politiko berberak aitortuko zizkien sistema politikoaren erreforma bat zuen helburu, ez egiturazko zapalkuntza suntsitzea; feminismo langileak, ordea, sistema kapitalista eta patriarkalaren egiturazko eraldaketa bilatzen du, iraultza politiko zein soziala.

Eskubide zibil eta politikoak. XVII. Mendean sortutako kontzeptuak dira, eta pertsona zein herri orori, izate hutsagatik aitortzen zaizkion eskubide, berez ukaezinak, dira. Eskubide zibil eta politiko horien adibide dira Euskal Herrian sistematikoki ukatzen zaizkigun elkartzeko zein antolatze eskubideak, gure etorkizuna erabakitzeak, adierazpen askatasuna... Herriei bakarrik ez, pertsona taldeei ere zapaltzen zaizkie eskubideok, emakumeon adibidea oso argia delarik.

Esplotazioa. Kategoría edo sektore batek beste baten lan indarraz baliatuz euren kontura ateratzen duen onura da, egoera hori mantentzeko nolabaiteko indarkeria (sinbolikoa edo fisikoa) erabiliz.

Estatua. Mundua antolatze sortutako egitura juridiko-administratiboa. Biolentziaren monopolioaren bidez, bere

lur eremuko norbanakoak bere menpeko bilakatzen ditu, legea hausten duena espetxera bidaliz. Estatuak bere menpeko biztanleen ongizatearen erantzukizuna du, eta horretarako baliatu beharko lituzke aurrekontuak. Hala ere, aurrekontu horietan gastu soziala murrizteko baliatu izan dituzte emakumeek dohainik burututako zaintza lanak.

Estereotipoa. Jendartean onartua izateko norbanakook jarraitzen ditugun ereduak. Eredu hauek aurreiritzietan oinarritzen dira eta sistema kapitalista patriarkarraren erreprodukzioa bermatzen dute.

Falozentrismoa. Zakila kokatzen du sexu harremanen erdigunean. Sexu praktika onartuak zakila protagonista nagusi dutenak eta ugalketara bideratutakoak dira, hau da, koittoa edo sarketa. Zakila plazer iturri goren gisa ulertzeak gainerako gorputz atalak ezagutzea eta ikertzea oztopatzen du, sexualitatea mugatuz.

Feminismoa. Zapalkuntza patriarkalari aurre egin asmoz, testuinguru desberdinetan emakumeek beren egoerari buruzko hausnarketatik abiatuz eratu dituzten askapenerako teorioren multzoa. Jendartearen antolaketa gizonezkoek duten nagusitasuna eta emakumeek pairatzen duten mendekotasuna egoera aztertzeke, ulertzeke eta iraultzeke garatu diren konzeptu eta tresna teorikoen, zein aldarrikapenen multzo koherentea da. Historikoki emakumearen askapen borroka ardatz gisa hartu duen filosofia anitza da feminismoa. Teoria desberdin asko biltzen ditu bere baitan baina komunean honakoa du: emakumeen zapalkuntza egoera gainditu eta harreman parekideetan oinarrituko den jendartea eraikitzea.

Feminizidioa. Emakumeen kontrako krimenak eta desagerpenak dira. Feminizidioa izan dadin, ezinbestekoa da

isiltasuna, zuhurtziagabekeria, laguntza eza eta horrelako delituak aurreikusi eta saihesteko erantzukizuna duten autoritateen ez-egitea.

Generoa. Ezaugarri biologikoetan oinarrituta jaiotzatik egiten den baloreen eraikuntza kulturala. Generoak jarrera jakin bat izatera behartzen gaitu, rol eta estereotipo konkretu batzuk atxikitzen zaizkigu gorputz biologiko baten edo beste baten arabera. Horrela ahalbideratzen du sistema patriarkarrak generoen arteko hierarkizazioa genero femeninoa menperatua eta zapalduz.

Genero indarkeria. Emakumeen kontrako indarkeria da. Legearen arabera, harreman afektiboan eta harreman afektibo izandakoen baitan emandako indarkeria fisiko zein psikologikoa soilik da genero indarkeria, eta horrek du babes juridikoa. Hala ere, genero indarkeria askoz ere zabalagoa da. Lan eremuan ematen da diskriminazio eta lan jazarpen moduan, aisialdi eremuan baboseo forman, publizitatean...

Hegemonia. Jendartean gailentzen den eredu, eragile batek besteekiko duen nagusitasunari egiten dio erreferentzia. Egun balore patriarkalak hegemonikoak dira, baita errealitatearen ikuspegi androzentrista ere. Hala ere, bagaude beste balore batzuk gure egiten ditugun mugimenduak, hegemonia lortuz jendartea eraldatzeko lanean dihardugunak.

Heteroaraua. Patriarkatuak ezartzen duen erregimen politiko eta ekonomikoari egiten dio erreferentzia. Zehazki, praktika sexual heterosexualei mekanismo ezberdinen bitartez: hezkuntzan, erlijioan, osasungintzan, jurisprudentzian... jendartearen funtzionamendurako heterosexualitatea ezinbesteko eredu bakar gisa oinarri harturik. Erregimen hau

bazterketa, ikusezintasuna edo jazarpena bezalako mekanismo sozialekin elikatzen da.

Hezkidetzak. Genero irizpide patriarkalei muzin eginez, eta balore feministetan oinarrituta, heztea da. Patriarkatuaren mantenua ahalbidetzen duen hezkuntza ereduak dugu gaur egungoa. Txiki-txikitatik heziak gara emakume eta gizon izateko, biei kontrakotasun batean eta ordena hierarkikoan oinarritzen diren rol ezberdinak esleituz. Horretaz gainera, genero rol horiek ezaugarri fisiko batzuen arabera ezarriko dira; hala, aludunei genero femeninoa esleitzen zaie eta zakildunei maskulinoa. Dikotomia horretan oinarrituz egungo hezkuntza ereduak sistema patriarkala erreproduzitzen du. Hezkidetzak, ordea, parekotasun batean oinarritutako hezkuntza ereduak bilatzen du.

Kapitalismoa. Ekoizpenaren, banaketaren eta truke bideetan jabego pribatuen oinarritzen den ekonomia eta jendarte sistema. Bizitza kapitalaren akumulazioan oinarritzen den bizi ereduak. Kapitalismoa jabego pribatuen eta merkataritza librean oinarritzen den ordena soziala da. Kapitalistak ondasun metaketa du helburu eta ekoizpenerako bitartekoen jabetasuna eta salneurriak ezartzeko askatasuna dira haien tresna nagusiak. Kapitalismoaren helburu nagusia ahalik eta etekin handiena ateratzea da. Beraz ondasun metaketa beste edozer edo edonoren gaintetik jartzen da, pertsonen eta Amalurraren zapalkuntzaz baliatuz helburu goren hori lortzeko.

Klase zapalkuntza. Estratifikazio sozial mota bat da, jendarteko talde batek ezaugarri komun bat partekatzen duena: bizi baldintzak. Kapitala ez dutenek haien lan indarra saldu behar dute soldata baten truke bizirauteko, ordez, kapitala dutenek, kapitalistek, ekoizpenaren bitartekoaren

jabeak dira eta langileen esplotazioaz baliatzen dira beraien ondasunak handitzeko.

Koitozentrismoa. Koitoa sexu-harremanen erdigunean kokatzea da, hau da, sexu harremana sarketara mugatzea, eta bestelako praktikei bere izaera sexuala arintzea "hasierako jolas" gisa ulertuz. Horrek plazera jasotzeko beste bide batzuk ezagutzea oztokatzen du. Ez da kasualitatea mentalitate hegemonikoa koitozentrismoa izatea, ugalketara bideratutako sexu-praktika baita.

Kollontai, Alexandra. San Petersburgon jaio zen 1872an sendi liberal batean. Gaztetatik marxismoan interesa izan zuen eta Zurichera joan zen Lanaren Historia ikastera. 1899an Alderdi Langile Sozialdemokrata Errusiarrean afiliatu zen. Finlandia eta Sozialismoa artikulua argitaratu zuenean, deserriratu egin behar izan zuen. Hala ere, iraultzan aktiboki parte hartzen jarraitu zuen eta 1905eko gertaeretan inplikaturik egon zen, eta 1917ko Urriko Iraultzaren ostean, Errusiara itzuli zen, non Petrogradoko Soviet-eko Komite Exekutiboko kide hautatua izan zen. Alderdi Boltxebikeko emakumeen atalean parte hartu zuen, Gobernu baten parte izan zen lehenengo emakumea izan zen Lenin-ek izendatuta, eta Historiako lehenengo emakume enbaxadorea ere izan zen. Hala ere, marxismoa eta emakumeen eskubideen aldeko borrokaren uztarketan egindako ekarpen teorikoagatik da ezaguna. Bere obren artean ezagunak dira Emakumearen emantzipazioa, Marxismoa eta iraultza sexuala, Jendarte eta amatasuna eta Langile klasea eta moral berria dira. Horrez gain, maitasun ereduak eta militantzia landu zituen Boltxebike maitemindua nobelana. 1952an hil zen Moskun.

Kontrol soziala. Bizi eredu jakin baten jarraipena bermatzeko erabiltzen diren neurriak dira. Helburua, norbanako zein kolektiboaren jokamoldea baldintzatzea da, beti ere sistemaren ordena bermatu asmoz. Kontrol sozial honek genero eta rolen iraupena bermatzen du, jendartearentzako normala zer den ezarri, eta "normaltasun" horren barne ez dauden praktika zein jarrerak indarkeri fisiko zein sinbolikoaren bidez jazarriz. Hezkuntza sistema edota familia kontrolerako instituzio indartsuak dira.

Kontzientziazioa. Garrantzizkotzat jotzen den fenomeno edo arazo baten inguruko lanqueta ideologikoa.

Kontsumismoa. Beharrezkoa baino produktu eta zerbitzu gehiagoren kontsumoa bultzatzen duen jendarte eredia zein norbanakoaren jarrera. Kontsumismoa kapitalismoaren baitako kontsumo jendartearen ondorioa da eta publizitatea, moda eta beste mekanismo sozial batzuek indartzen dute.

Kristalezko sabaia. Lanpostuen hierarkian goi karguetara iristeko dagoen ikusezina den marra bati egiten dio erreferentzia, marra horretatik gora igotzea emakumeentzako ezinezkoa dela adierazteko. Emakumeak lan munduan sartu arren, merkatuen gidaritzak eta enpresen zuzendaritza karguek gizonetzkoenak izaten jarraitzen dute, emakumeek erabakitzeko ahalmunik ez duten postuetan jarraitzen dutelarik.

Lana. Historikoki, lanaren definizioa eremu produktibora mugatu da, eremu pribatua eta etxekoa alde batera utziz. Hori dela eta, lana soilik soldata baten truke egiten den jarduera gisa ulertu izan da, lana eta enplegua berdinduz. Aldiz, modu zabalean ulertuz, lana edozein ekintza fisiko edo mental dela esan daiteke, zeinen

bitartez, lehengaiak material erabilgarriago batean eraldatzen diren, zerbitzuak sortu, ondasunak garraiatu, eta gizartea hornitzen den, eta jakintza zein giza ezagutza zabaltzen den.

Lan erreproduktiboa. Giza erreproduktiorako zein giza bizitzaren iraupenerako ezinbestekoak diren zaintza eta arreten multzoa dira, eta historikoki emakumeek burutu dituzte dohainik. Heziketak, laguntzak, elikatzeak, zaintzak, entzuteak, etxearen garbiketa eta mantenuak... osatu dituzte historikoki lanok, eta emakumeen ugaltzeko gaitasunak berarekin dakartzan gaitasun naturalak izatea aitzakia hartuta, emakumearen funtzioa izan dira familian. Lan hauek dohainik eta maitasunaren izenean burutzeak izugarriko eragin du ekonomian bai enpresaburuentzako, baita estatuentzako ere, ezinbestekoa den lan eta funtzio bat ordaindu behar ez izatea baitakar. Gainera, lan merkatutik kanpo kokatutako lana izatearen ondorioz, ez da sozialki batere baloratua, eta horretan lan egiten duten langileen (gehienak emakume eta etorkinak) baldintzak bereziki prekarioak izaten dira. Zaintza lanen ikusezintasuna nabaria izan arren, ezinbestekoak dira bai jendartearentzako, baita ekonomiarentzako ere.

Lan produktiboa: Produktzioa, zentzu zabalean, ondorioak dituen edozein ekintza izan daiteke. Aldiz, zentzu hertsian, soilik beste objektu bat sortzen duen ekintza da, hau da, beste zerbait produzitzen duena. Gizarte kapitalista batean, produktzioa merkatuari lotuta dago, horregatik, soilik merkatutik eta diru ekonomiatik pasatzen dena da lan produktiboa. Horrela, teorikoki, "ekonomia" familiatik banatzen da. Zentzu honetan, produktioak ez ditu kontutan hartzen emakumeek historikoki burutu dituzten lanak, hortik dator beste "produktzio" eremu bat aldarrikatzearen

beharra: lan erreproduktiboa, hain zuzen ere.

Langileria. Burgesiarendik ezberdintzen dutenek osatutako klase zapalduari deitzen zaio. Batez ere, marxismoarekin izan zuen definizio maila altuena eta industrializazioarekin bulkadarik handiena.

Maitasun erromantikoa. Erdi Arotik hona indarrean mantendu den maitasun eredu, zeinak maitasun heterosexual, monogamo eta betierekoaren idealizazioaren bitartez, sistema kapitalista eta patriarkarren baloreak mantendu eta transmititzen dituen, bikoteari eta bikotearen barruan funtzio eta rol zehatz batzuk esleituz. Horien artean nabaria da emakumearen menpekotasuna, eta bikotea familiara bideratutako lotura eta konpromiso bezala ulertzea.

Maskulinitateak. Maskulinitateak eraikuntza sozial anitz eta aldakorra dira: kultura, historia eta sistema sozioekonomikoak eraginda aldatzen dira. Elkarrekin maskulinitate ideologia desberdinak bizi eta hierarkikoki antolatzen dira. Gure jendarte patriarkalean, gainerako maskulinitate ereduak gailentzen zaien maskulinitate eredu hegemoniko bat dago, eta hori hartzen da gizentasunaren irudizat, gizon izateko gainerako moduak ezkutatu.

Matxismoa. Sistema patriarkarrean oinarritzen den egituraketa, jarrera eta praktika sozialak; esparru orotan gizonen boterea gainjartzen zaio gainontzekoari. Matxismoak emakumeen eskubideen ukazioa eta horien zapalkuntza ahalbidetzen du. Jendarte harremanetan gizonaren nagusikeria adierazten duten jarreraren multzoa da, aldi berean emakumeak gutxietsiz gehienetan.

Memoria historikoa. Ukatutako historiaren pasarte bat berreskuratu asmoz egian oinarritutako iraganaren

aldeko ekimena. Herrien edo kolektiboen memoria izan daiteke. Feminismoari dagokionez, emakumezkoak Historiaren idazketa ofizialek kanpo geratu gara, eta agertu izan garenean, funtzio zehatz batzuetan izan da. Hala ere, emakumeak ezinbestekoak izan gara historiaren garapenean: emakume errusiarrak Urriko iraultzaren parte hartzaile sutsuak izan ziren, emakumeek burutu zituzten Frantziako Iraultza eragin zuten lehenengo errebolta (tartean Bastillako espetxea erasotzea)... Horrez gain, mendeetan zehar burututako gerrek, izurriteek eta pobrezia emakumeak muturreko egoeretan kokatu ditu, historia liburuetan agertu ez arren: bortxaketa sistematikoak, gizonak gerran zeuden bitartean estatuen ekonomiak eta familienak mantentzea, derrigorrezko ezkontzak... Emakumeon memoria historikoa berreskuratzea ezinbestekoa da. Iragina ardatz gisa hartzen badu ere, etorkizuna du ortzi muga.

Merkantilizazioa. Zerbitzu, produktu eta abarrek izan dezakeen berezko funtzio edo balioaz harago etekin ekonomiko hutsa lortzeko helburuarekin merkaturatzea. Kultura, hezkuntza edota haurren merkantilizazioa dira biderik ohikoena, baina sexualitatea, erotismoa... ere merkatu produktu bihurtu dira.

Merkatua. Produktuak trukatzeko espazioa. Alta, normalean merkatuez hitz egitean finantza merkatuez hitz egiten da. Finantza merkaturak, finantziario beharra duten subjektuak (enpresak, administrazio publikoak...) eta aurrezkiak dituzten subjektuak harremanetan diren espazioak. Espekulazioan oinarritzen da eta fikziozko dirua erabiltzen den ekonomia erreala desitxuratzen du, burbuilak eta krisiak sortuz.

Monogamia. Monogamia maitasun harremana beste pertsona bakarrik

eraikitzea onartzen duen maitasun eredu da. Amodioa elkarri fidelak diren bikoteka antolatzea ezartzen du, eta maitasun erromantikoa erabiltzen du lotura hori mantentzeko. Bikote horiek historikoki gizon eta emakume batez osatuta egongo lirateke, eta ugalketara bideratuta. Hala ere, harreman homosexualen kasuan ere, bikotera bideratzen dira, eta familia osatzera.

Ongizate Estatu. Bereziki Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europan garatu eta gauzatu den estatu-eredua da. Estatu bateko hiritar guztiei prestazio, laguntza eta zerbitzuak eskaintzen dizkie hezkuntza-, osasunean- eta lan-arloan, Estatuak esku-hartuz ekonomia publikoan. Bi helbururekin; batetik, ideologikoa, garai hartako komunisten planteamenduen arrakastaren beldur hau erregulatu ahal izateko. Bestetik, ekonomikoki, merkaturia irekitzeko baliatu zen. Langileriak beharizan berriak eta zenbait produktuen kontsumoa bultzatzeko, beraien erosteko ahalmena igo beharra zegoen.

Parekidetasuna. Berdintasunaren kontzeptua gaindituz eta sexuen arteko erlazio sozial berriak ikuspuntu feministatik definitzeko asmoz, feminismoak proposatutako terminoa da. Pareko eta parekide hitzak, desberdinak izan arren paralelo, antzeko, analogo, balio eta maila berekoak diren errealtateak izendatzeko erabiltzen dira. Kide hitzak "sail, multzo, elkarre... bereko pertsona edo gauza" esan nahi du. Zentzu horretan, emakume eta gizonak pareko edo parekideak direla esan daiteke, herri eta jendarte bereko kideak direlako. Bestetik, kideetasuna, kideen artean dagoen harremana edo lotura definitzeko erabiltzen da. Beraz, bi hitzak elkartuz, parekidetasuna balio eta maila bera duten pertsonen arteko harremana adierazteko, Euskal Herriko emakume eta gizonen arteko harreman sozial berriak

adierazteko erabil daiteke.

Patriarkatua. Hitzez hitz, "aiten gobernu" esan nahi du. Erlazio sozialak eta botere erlazioak sexuaren arabera ezartzen dituen eta kultura eta garai desberdinen arabera moldatzeko gaitasuna duen jendarte antolatzeko sistema da. Eredu patriarkarrak sexuen araberako rolen banaketa eta erlazio hierarkikoa ezartzen ditu pertsonen artean. Jendarte patriarkarrean, gizonak emakumea menperatzen du, gizonak boterea du jendarteko alor gehienetan. Feminismoak patriarkatuaren dimentsio ekonomiko, politiko eta ideologikoa definitu eta bere izaera estrukturala azpimarratzen du. Kapitalismoak sistema patriarkarra besteak beste lan erreproduktiboa bermatzeko erabili du. Emakumearen eskuz utziz, inongo kosterik suposatu gabe bere etekinak handitu dira.

Plusbalioa. Enpresa kapitalistetan langileriak sortutako ekoizpenaren balioa handituz enpresariak ateratzen duen irabazia. Modu honetan, enpresariak nahiz eta zuzenki parte ez hartu ekoizpen prozesuan, bera da gainbalio horren onurak jasotzen dituen bakarra.

Prekarietatea. Baldintza duinetan ematen ez dena; segurtasun eza, ezjakintasuna eta berme falta. Egungo sistemaren helburu bakarra ekoizpena izaki, ez ditu aintzat hartzen pertsonen baldintza duinak. Modu honetan, bizitza bera arriskuan jarritz. Horrek, lan munduan, hezkuntza, etxebizitzan, orokorrean, bizi ereduak du isla.

Proiektu politikoa. Egoera baten aurrean eragile batek duen alternatiba zehatza. Gure kasuan independentzia, sozialismoa eta feminismoa, Euskal Estatu Sozialista eta Feminista helburu.

Rola. Aukera/eskakizun sozial eta subjektiboen ondorioz sortutako funtzio,

lan, erantzukizun eta pribilegioen multzoa da: hau da, pertsona batek rol bat hartzen duenean, bere inguruko jendeak betetzeko eskatzen dio, eta, ez badu betetzen, zigortu egiten du. Normalean pertsonak bere egiten du rola, eta, batzuetan, bere psikologia, afektibitatea eta autoestimua rol horren arabera eratzten ditu.

Sexismoa. Sexu jakin bateko pertsonen egindako diskriminazioa da. Estuki lotuta dago henbrismoarekin, matxismoarekin, patriarkatuarekin eta homofobiarekin.

Sexua. Pertsonak ar eta eme bezala bereizten dituen ezaugarri fisikoen araberrako banaketa da. Sexua aurre-kulturala den bereizketa da, eta patriarkatuak bere gainean generoen sistema eraiki du, genero bakoitzari rol, funtzio eta espektatiba batzuk ezarri. Horrela sortzen dira gizon eta emakume kontzeptuak. Hala ere, bi sexu horiek generoen sistemari erantzuten dioten arren, azken urteetako hainbat teoria feministaren arabera, bi sexu baino gehiago daude, genero sistemak ezkutatu egin dituenak.

Sexualitatea. Alde batetik, izaki sexudun garen aldetik nola eraikitzen garen definitzen du, bakoitzari dagokigun biologia, izaera eta gizartea kontuan hartuta. Bestetik, zer sentimendu eta pentsaera sortzen zaizkigun: desioak, fantasiak, sentimenduak, maitemina, morboa, obsesioak, beldurra, zer gustatzen zaigun... eta zelan bizi ditugun sentipen guzti horiek ere, sexualitatea da.

Sexu askatasuna. Norberak nahi duen moduan kudeatzea desioa, plazera eta bere gorputza.

Sexu-identitatea. Emakumezko edo gizonezko sentitzea. 5-8 urte artean finkatzen dugu (momentu horretatik

aurrera, kasu gehienetan, argi dugu neska ala mutil garen).

Status quo. Latinetik datorren hitza da: "egungo momentuko egoera" esan nahi duena. Gatazka egoera batean, statu quo-aren babeslea, egoera aldatzea nahi ez duena da, eta patriarkatuaren kasuan, egiturazko zapalkuntza errotik aldatu nahi ez duena. Normalean, babesle horrek statu quo-a babesten du momentuko egoera horretan dituen pribilegio mantendu nahi dituelako.

Transgeneroa. Genero rol heterosexualengandik (femenino/maskulino) ezberdintzen diren jarrerak. Generoa ezaugarri fisikoetan oinarrituta esleitzen zaigu jaiotzez, transgeneroa bakoitzari dagokion generoaren orde bestea bat izatean datza. Hau da, pertsona baten sexu-identitatea eta genitalak bat ez etortzea. Adibidez, aludun batek ez izatea soilik rol femeninoak baita maskulinoak ere. Erabaki politikoa izan daiteke edo ez, baina eredu hegemonikoaren aurka kokatzen da. Transgeneroek jendartearen diskriminazio handia jasaten dute, ez direlako ohiko "neska" edo "mutil" sailkapenean sartzen.

Trabestia. Beste sexukoei dagozkien arropak jantziz kitzikatzen den pertsona (ezin dugu ahaztu sexu bakoitzarentzako arropa aproposen zentzua aldatu egiten dela gizataldearen arabera).

Zapalkuntza. Arrazoi kultural, sexual, arrazial edota politikoengatik talde edo kategoriatzat batzuen artean dagoen botere harremana da. Zapalkuntza desberdinen artean lotura dago, eta horrela sistemak antolatzen dira.

SEXU - GENEROA

-AZPIAZU, Jokin (2013): "Maskulinitateak: eraldatu, irauli ala baztertu?", Pikara Magazine <http://www.pikaramagazine.com/2013/02/maskulinitateak-eraldatu-irauli-ala-baztertu/>

-Euskal Herriko Bilgune Feminista (2011): Sexualitatearen Eztabaida.

-ESTEBAN, Mari Luz (2012): "Maitasunaz egin daitezke sakrifizioak, baina beti izan behar dute aldi baterako", Pikara Magazine <http://www.pikaramagazine.com/2012/02/mari-luz-esteban-maitasunaz-egin-daitezke-sakrifizioak-baina-beti-izan-behar-dute-aldi-baterakomendebaldeko-kulturaren-maitasuna-eta-emozioak-ulertzeko-moduaren-arabera-erakitzen-diragizartea-e/>

-GARCIA DE VICUÑA; Maider, PORRAS, Iratxe (2010): Sexualitatean Xirikatuz, Donostia. Erein.

-HERRERA, Coral (2011): Más allá de las etiquetas, Tafalla. Txalaparta. (2010): La construcción sociocultural del amor romántico, Madril. Editorial Fundamentos.

-MEDEAK (2009): "Gorputz Intsumisoen Oihukak", Sexu Identitateak. Eztabaida Berriak, Biluztuz Jantzi, Euskal Herriko Bilgune Feminista-Topaketak.

-NASH, Mary (2004, 2012): Mujeres en el mundo. Historia, retos y movimientos, Madril. Alianza Editorial. 33-68. orr.

-RUBIN, Gayle (1986): "El tráfico de mujeres. Notas sobre la <<economía política>> del sexo". Nueva Antropología, Vol. VIII, 30 (1975), 95-145. <http://www.juridicas.unam.mx/publica/librev/rev/nuant/cont/30/cnt/cnt7.pdf>

-VARELA, Nuria (2008): Feminismo para principiantes. Barcelona. Ediciones B.

Bideoak:

Sexu aukeraren biologizazioa:

•"Selección sexual humana: diferencias de género": <http://www.youtube.com/watch?v=IMNDR7QuMGg>

•"El cerebro tiene sexo", Redes Punset: <http://www.youtube.com/watch?v=n4j5eeHJcnc>

•"La química del amor": <http://www.youtube.com/watch?v=boVNW3hBYzY>

Hipersexualizazioa:

•El falso orgasmo (Dokumentala)

Heteronorma:

•HetERO?: <http://www.youtube.com/watch?v=47UaCpC-kHI>

Transexualitateari buruzko erreportaia:

•Maskarak: <http://www.youtube.com/watch?v=A6y2BDoMHRl>

Genero arauak eta normatik at daudenak:

•BUTLER, Judith: <https://www.youtube.com/watch?v=RH3UmDBuR1Y>

•PLATERO, Lucas: <http://www.youtube.com/watch?v=kPS4zChAkw>

•PRECIADO, Beatriz: <http://www.youtube.com/watch?v=4aRrZZbFmBs>

Maitasun erromantikoa:

•Ainara Santamaria, "Politikoki ere landu behar da maitasuna": <http://www.youtube.com/watch?v=sksqxQFPtuA>

Emakumea eta zinema:

https://www.youtube.com/watch?v=NoP_AAKkwo

•Lizunkeriak:

<http://vimeo.com/36509870>

Indarkeria:

•El maltrato sutil: <http://www.youtube.com/watch?v=oy9zJ5j2bWA>

PATRIARKATUA – KAPITALISMOA

-ARESTI, Nerea (2000): "El ángel del hogar y sus demonios. Ciencia, religión y género en la España del s.XIX", Revista de Historia Contemporánea, Zk. 21 (II), 363-394.

-BALBO, Laura (1994): "La doble presencia", BORDERÍAS, Cristina; CARRASCO, Cristina; ALEMANY, Carme (eds.): Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales. Icaria, Bartzelona, 505-513.

-BARCENILLA, Miguel Angel (2001): "Historia contemporánea de las mujeres en Euskal Herria" La mujer en Euskal Herria. Hacia un feminismo propio, 6-65, Basandere Argitaletxea, Donostia.

-CARRASCO, Cristina (2011): "La economía del cuidado. Planteamiento actual y desafíos pendientes", Revista de Economía Crítica, Zk. 11, 205-225.

-D'ATRI, Andrea (2007): "Pan y rosas. Pertenencia de género y antagonismo de clase en el capitalismo", Caracas (Venezuela). Ediciones el Perro y la Rana. 11-22.

-HARTMANN, Heidi (1979): "Un matrimonio mal avenido. Hacia una unión más progresiva entre feminismo y marxismo", Zona Abierta, nº24, (1980), pp. 85-113. <http://www.fcampalans.cat/archivos/papers/88.pdf>

-KOLLONTAI, Alexandra (1976): Marxismo y revolución sexual, Madril. Castellote Editor Colección.

-LABORATORIO FEMINISTA:

Transformaciones del trabajo desde una perspectiva feminista: producción, reproducción, deseo, consumo, 179-200, Tierradenadie, Madril. <http://www.tierradenadieediciones.com/Laboratoriofeminista-transformacionesdeltrabajo.pdf>

-LAMARCA LAPUENTE, Chusa: Ella para Él, Él para el Estado y los tres para el Mercado: Globalización y Género. Comisión Internacional de Ecologistas en Acción.

-ENGELS, Friederich (1884): El origen de la familia, la propiedad privada y el estado. Biblioteca Virtual Espartaco. www.marxists.org/espanol/m-e/1880s/origen/el_origen_de_la_familia.pdf

-MILLET, Kate (1995): Política Sexual, Madril. Cátedra.

-PÉREZ OROZCO, Amaia (2006): "La economía: de icebergs, trabajos e (in) visibilidades", LABORATORIO FEMINISTA: Transformaciones del trabajo desde una perspectiva feminista: producción, reproducción, deseo, consumo, 233- 253, Tierradenadie, Madril.

-PATEMAN, Carole (1995): El contrato Sexual. Anthropos, Bartzelona.

-SCOTT, Joan (1993): "La mujer trabajadora en el s.XIX", DUBY, George; PERROT, Michelle: Historia de las mujeres. El siglo XIX, (IV), Taurus, Madril.

-TIQQUN (2012): Primeros materiales para una teoría de la jovencita, Madril. Ediciones Acuarela y Machado Grupo de Distribución, S.L.

Bideoak:

Zer da feminismoa? AMORÓS, Celia:

Patriarkatua, kapitalismoa eta inperialismoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=SwXv5aQU-yo>

Etxeko eta zaintza lanen esku

ikustezina: <http://www.youtube.com/watch?v=il1Hp6fEeU4> / <http://www.youtube.com/watch?v=ckEXDkdZL9c> / <http://www.youtube.com/watch?v=AMJ5m-VVl8k>

Ekonomia Feminista:

•PEREZ OROZCO, Amaia

Kapitalismoak zaintza lanetik etekinak ateratzen ditu: <http://www.youtube.com/watch?v=5ajpf96F29A>

Ekonomia feministak nola ulertzen du elkardependentzia? <http://www.youtube.com/watch?v=PdAMZTb-KbY>

ALTERNATIBA

-CARRASCO, Cristina (2001): "La sostenibilidad de la vida. ¿Un asunto de mujeres?", *Mientras Tanto*, Zk. 82, 43-69.

-ERASUN, Arantxa (2001): "Itzalaren itzalean borrokan" *La mujer en Euskal Herria. Hacia un feminismo propio*, 247-273, *Basandere Argitaletxea*, Donostia.

-PÉREZ OROZCO, Amaia (2012): "De vidas vivibles y producción imposible", interneten eskuragarri: http://www.lanharremanak.ehu.es/p231content/es/contenidos/informacion/rll_redes/es_redes/adjuntos/Amaia_Orozco.pdf (2012/08/21)

(2006): "Atención, zona en obras; construyendo ciudadanía", *El Ecologista*, La Letra A y Libre Pensamiento. Zk. 06-07, 1-6.

-DE MIGUEL, Ana: *El conflicto clase/genero-sexo en la tradición socialista*.

Bideoak:

Amaia Pérez Orozco, V. Topaketa

Feministak Leitza: <http://www.youtube.com/watch?v=Cf1YZnMv4i8/> http://www.youtube.com/watch?v=kiX7Y__rhTs

PRAKTIKA FEMINISTA

-ÁLVAREZ, Pilar (2012): *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en la CAPV, interneten eskuragarri*: http://www.gipuzkoagazteria.net/gestor/nodos/nodo_dok_din/Relaciones_de_genero_y_cultura_en_gaztetxes_de_la_CAPV.pdf

-Euskal Herriko Bilgune Feminista: (2008): *Autodefensa Feminista*.

EMAGIN, Hezkidetza Lau Haizetara Egitasmoa: http://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza_lau_haizetara_egitasmoa

Hezkidetza Gida: <http://hezkuntzasarea.wordpress.com/bideoak/hezkuntza-egitasmoak/>

Hezkidetza Tailerra: power pointa.

(2013): *Abortatzeko eskubidea*: http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/aborto_dossiera_2013.pdf

Emakumeon Eskubideen Karta: http://www.bilgunefeminista.org/dokumentazioa/emakumeon_eskubideen_karta.pdf

-SAGASTIZABAL, Marina (2012): *Presentzia-ausentzia hirukoitza: etxeko eta zaintza lanak, enplegua eta parte hartze politikoaren inguruko ikerketa*. *Ikasketa Feministak eta Generoak* Masterra, EHU.

-VERGE, Tània; TORMOS, Raül (2012): "La persistencia de las diferencias de género en el interés por la política", *REIS*, Zk. 138, 89-108. <http://www.reis.cis.es/REIS/PDF/>

REIS_138_051333354476087.pdf

-ZUMALABE, Joxemi (2012): "Herri Mugimenduak eta Militantzia Ereduak", Udako Euskal Unibertsitateko Ikastaroa.

Bideoak:

EHBF, "Autodefentsa Feminista":

http://www.youtube.com/watch?v=XjB_vOdmuXM

<http://www.youtube.com/watch?v=At2KLW5ytj>

Pilar Álvarez, "Gaztetxeak eta jarrera sexistak": <http://www.youtube.com/watch?v=evYjj4PGehg>

Joxemi Zumalabe, "Militantzia ereduak eta barne horizontaltasunerako tresnak":



